2018 MEMORIAREN AURKIBIDEA

1. SARRERA

1.1. Zer da Helduen Hitza _____ 3

1.2. Zein da gure oinarria eta zer helburu ditugu?_____ 5

1.3. Zer antolamendu dugu eta nola funtzionatzen dugu hori guztia lortzeko?_____ 5

1.3.1. Bazkideen Batzarra_____ 5

1.3.2. Zuzendaritza Batzordea_____ 5

1.3.3. Lan Batzordeak_____ 7

2. 2018an EGINDAKO JARDUERAK

2. 1. Etengabeko prestakuntza: hizketaldiak-hitzaldiak_____ 7

2. 2. Hitzaldiak euskaraz _____ 13

2. 3. Euskararen ikaskuntza _____ 15

2. 4. Bidezidorrak _____ 17

2. 5. Ibilaldiak –Ibilbide osasungarriak_____ 27

2. 6. Literatura tertuliak _____ 29

2. 7. Ostegunetako Forua _____ 30

2. 8. Irteera Kulturalak _____ 32

2. 9. Musika eta Kantu tailerra _____ 39

2.10. Antzerki tailerra _____ 39

2.11. Helduen Hitza - Berriak Aldizkaria_____ 41

2.12. Webgunea _____ 42

2.13. VI. Literatura lehiaketa _____ 43

2.14. Mugikorrarekin egindako argazkien tailerra _____ 44

3. BALANTZE EKONOMIKOA – DIRU SARRERAK ETA GASTUAK 2018an

3.1. Kontuen egoera-Diru sarrerak eta gastuak_____ 45

3.2. Diru partiden justifikazioa _____ 46

4. BESTE JARDUERA BATZUK

4.1. XV. Urteurrena _____ 47

4.2. 2017-18 ikasturte amaiera_____ 48

4.3. 2018-19 ikasturtearen hasiera_____ 49

5. UDALAREKIKO HARREMANA

5.1. Sektore Kontseilua : Gizarte Ekintza_____ 49

6. HARREMANAK DIPUTAZIOAREKIN

6.1. Adinberri estrategia-zahartze aktiboa eta osasungarria_____ 50

6.2. Donostialdeko Adinekoen Kontseilua _____ 51

7. LANKIDETZA ERAKUNDE ETA ORGANIZAZIOEKIN

7.1. Harremana Gipuzkoako adinekoen beste erakunde batzuekin___ 51

7.2. Gure gidak San Telmo Museoan_____ 52

7.3. EHUko Udako Ikastaroak_____ 53

7.4. Boluntariotza _____ 54

8. ONDORIOAK _____ 54

9. ESKERTZAK_____ 55

1. SARRERA

2019 hasi berrian gaudelarik, 2018. urtean egindako lanari begiratu nahi diogu, urteko memoria egiteko. Urte berezia izan da, inondik ere, 15 urte bete baititu elkarteak. Dakizuenez, 2003. urteko martxoaren 21ean sortu zen elkartea; abentura eder eta interesgarri honi 5 lagunek ekin zioten, hasiera batean, eta 38 lagunek, gero.

Ohikoa dugun gogoeta eta azterketa egiteko ahaleginetik abiatuta egingo dugu memoria, geure buruari galdera hauek eginez: *zer egin dugu?, zergatik egin dugu?, nola egin dugu?.* Baina, horrez gainera, Helduen Hitzako bazkide garen adinekooi ikasturte horrek eman digun balioari ere erreparatu nahi diogu.

Ekin diezaiogun, beraz, gure gogoetari eta urteko ebaluazioari. Eta has gaitezen, halaber, guregana hurbiltzen direnei informazioa ematen. Horretarako, Helduen Hitza zer den laburtzen hasiko gara, gure jarduna zertan oinarritzen dugun eta nola antolatzen garen eta funtzionatzen dugun azaltzen.

1.1. Zer da Helduen Hitza, nor gara eta zenbat gara?

Helduen Hitza irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 55 urtetik gorako adinekoentzat osatua. 2003. urtean sortu zuten, Matia Fundazioaren Esperientziaren Eskolan jardundako 38 lagunek. Gaur egun, 510 bazkide baino gehiago gara Elkartean.

Adineko pertsonen belaunaldi berri bat osatzen zuten gizon-emakume horiek, esperientziaren eskolan ikastaro bat amaitu ondoren, jabetu ziren BIZITZAN ZEHARREKO IKASKUNTZA PROZESU ETENGABEAn parte hartzen jarraitu behar zutela eta prozesu hori zabaldu behar zela, zahartze handiagoa eta hobea edukitzeko, aktiboa, osasungarria, kulturala eta gure gizartean parte hartzen duena, ezagutzak, ahalmenak eta jarrerak hobetzeko helburuarekin eta ikuspegi pertsonal, zibiko eta sozialarekin.


Adineko pertsonok bizi garen gizartean eta guk geuk osatu ditugun elkarteetan parte hartze aktiboa izan dezagun lan egin nahi dugu, eta horretan dihardugu, gainera; berebat, lankidetzarako, sustapenerako eta gure jardunetan nagusi izen behar duten balioak garatzeko eragile izan nahi dugu. Azken batean, gizarte gizatiarragoa, bidezkoagoa, parte hartze handiagokoa eta gaur egungoa bezain baztertzailea izango ez dena sortzeko zereginean lagundu nahi dugu. Eskerrak gurekin jarraitzen dutenei, eta baita jarraitzen ez dutenei ere.

Gure Estatutuetan adierazten denaren arabera: “***Elkartearen helburuak, bertako Estatutuetan adierazten den bezala, honako hauek dira: adineko pertsonen banakako gaitasunak zein taldekoak ahal beste garatzea helburu duten ekimen guztiei ekitea***

eta horiek gauzatzea; horien bazterketa saihestea eta gizartean parte har dezaten laguntzea, eta, ondorioz, adinekoek gizartean betetzen duten zereginari balio handiagoa ematea".

Orduko hartan dagoeneko jarduera hauen aldeko apustua egin zen helburu horietara iristeko: *Etengabeko Ikaskuntza, Euskararen ikaskuntza, Ostegunetako Foroa, Boluntariotza, Mendi-ibiliak, Irteera Kulturalak, HH Aldizkaria-Berriak eta Literatura tertuliak.* Horiez gainera, gaur egun beste jarduera hauek egiteko aukera ere badago: *Hitzaldiak Euskaraz, Ibilaldiak, Musika eta Kantu Tailerra, Antzerki Tailerra eta Literatura Lehiaketa,* eta aurten, *Telefono mugikorraren bidezko argazkilaritza tailerra.* Modu sistematikoan eta egituratuan egiten diren jarduera horiez gainera, beste hainbat jarduera daude, unean unean egiten direnak; Urteko Memoria honetan ere emango dugu horien berri.

Eta zen bat gara.



Grafikoan argi ikusten da gure elkarteak izan duen bilakaera bazkide kopuruari dagokionez.

Argi dago, hortaz, azken urteetan etenik gabe eta luze handitu dela elkartea, elkarteak ondo jardun duelako, bai zein erakargarria den erakusteko moduan, bai 55 urtetik gorakoen taldeak modu positiboan baloratzen dituelako jarduera guztiak, beren zahartzearentzat alternatiba baliozkoa eta osasungarria baitira.

Hazkunde horrek, epe laburrera, bestelako arazoak ekar ditzake (espazioa lokaletan, kudeaketaren konplexutasuna, etab.), eta ondo aztertu beharko dira, eta irtenbideak eta soluzioak eman beharko zaizkie sortzen diren arazoei, hala egokitzen bada.

1.2. Zein da gure oinarria eta zer helburu ditugu?

Helduen Hitzari dagokionez, *Zahartze Aktiboa* bultzatzen eta gauzatzen dugu, eta Elkartearen balioen alde lan egin dugu orain arte, eta horretan jarraitu nahi dugu, bat baitatoz Zahartze Aktiboaren balioekin. Era horretara, zahartze AKTIBOA, DUINA, AUTONOMOA, PARTE HARTZAILEA eta SOLIDARIOA bultzatuko duen eta ahal bezain beste praktikara eramango duen Helduen Hitza nahi dugu, eta horren alde egiten dugu, gai horretan erantzukizuna duten erakundeen laguntzarekin, noski.

Hori lortzeko, aipatutako balioak indartzen duten jarduerak diseinatu, antolatu, proposatu eta egiten ditugu, hiru ardatz hauen inguruan:

- Garapen **EMOZIONAL** OSASUNGARRIA
- Garapen **MENTAL** OSASUNGARRIA
- Garapen **FISIKO** OSASUNGARRIA

1.3. Zer antolamendu dugu eta nola funtzionatzen dugu hori guztia lortzeko?

Honako hauek dira elkarte gisa ditugun helburuak lortzeko Funtzionamendu Organoak:

- Bazkideen Batzarra.
- Zuzendaritza Batzordea.
- Lan Batzordeak.

1.3.1. Bazkideen Batzarra da, Estatutuen arabera, *Elkartearen Organo Gorena, eta bazkide guztiek osatzen dute, haiek beren nahia adierazteko organoa izanik.* Esan bezala, agiri hau idazteko unean, 513 bazkide gaude guztira Elkartean izena emanda. Baina kopuru hori egunetik egunera ari da aldatzen. Eta jardueretan parte hartzen duten bazkideen kopurua ere aldatu egiten da, modu berean.

1.3.2. Zuzendaritza Batzordea, Estatutuen arabera, *ordezkaritza organo bat da, eta Elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzen ditu, Batzar Nagusiaren xedapenen eta zuzentarauen arabera.*

Zuzendaritza Batzordea hamar lagunek osatzen dute gaur egun, Estatutuetan adierazten denari jarraituz: Lehendakaria, Lehendakariordea, Diruzaina, Idazkaria eta sei batzordekide edo bokal. Azken horiek dira Elkartearen jarduerak prestatu, aurrera eraman eta ebaluatzen dituzten Lan Batzordeetako arduradunak. Lan Batzordeetako arduraduna Zuzendaritza Batzordeko kide denez, lana hobeto koordinatzea eta ebaluatzea lortzen da.

Urriaren 3ko Ohiz Kanpoko Batzarrean kide hauek utzi zuten beren kargua, arrazoi pertsonalengatik batzuek eta beren agintaldia bete zelako beste batzuek.

- Diruzaina: *Jesús Mª Goienetxe Bilbao*
- Bokala: *Maria Victoria Osoro León*

Eta honako hauek hartu zituzten haien karguak:

- Diruzaina: *Juan Maria Gonzalez Garmendia*
- Bokala-Irteera kulturalak: *Maria Jesús Leria Urdanoz*

Eta aho batez izendatu zituen Batzarrak.

Honako hauek osatzen dute, beraz, gaur egungo Zuzendaritza Batzordea:

- LEHENDAKARIA: *Juan Ignacio Aizpurua Arrizabalaga*
- LEHENDAKARIORDEA: *Luis Felipe Hernandez*
- DIRUZAINA: *Juan Maria Gonzalez Garmendia*
- IDAZKARIA: *Palmira Marinas*
- Ikaskuntza bizitza osoan zehar atalaren BOKAL arduraduna: José Luis Sansinenea
- Komunikazioa atalaren BOKAL arduraduna (Aldizkaria-Webgunea): Andrés Acosta
- Beste jarduera batzuk atalaren BOKAL arduraduna: *Joaquin Mendia*
- Irteera Kulturalak atalaren BOKAL arduraduna: *Maria Jesús Leria Urdanoz*
- Euskara atalaren BOKAL arduraduna: *Eva Esnal*
- Mendi-ibiliak atalaren BOKAL arduraduna: *Anttón Arruti*



Hilean behin elkartu ohi da Zuzendaritza Batzordea.

1.3.3. Lan Batzordeak gehienera ere 10 lagunek osatu ohi dituzte, premien arabera, eta premien arabera elkartzen dira. Bazkide gehien eta/edo aurrekontu handiagoa duten jarduerak kudeatzen dituzten Arduradunak Zuzendaritza Batzordeko bokal izaten dira. Era askotako lanak egiten badituzte ere, honako hauek dira, oro har, bete behar dituzten zereginak: egitarauak prestatzea, kudeatzea, ebaluatzea, kanpoko hizlariak kontratatzea, diruzainarekin koordinatzea ordainketak egiteko, halakorik balego... eta, batez ere, Jardueraren edo Jardueren Bokal Arduradunen bitartez, zubi lana egitea Zuzendaritza Batzordearekin, koordinatzeko eta informazio trukea egiteko.

Honako hauek dira gaur egun Zuzendaritza Batzordean arduraduna duten Batzordeak: Euskara, Mendi-ibiliak, Etengabeko prestakuntza, Irteera kulturalak, Aldizkaria - Berriak eta Helduen Hitzaren webgunea eta Beste Jarduera batzuk. *Beste Jarduerak* izenekoen bokal arduraduna (Ostegunetako Foroa, Literatura Tertulia, Musika eta Kantu Tailerra, Antzerki Tailerra eta Ibilaldiak) beste jarduera horien batzordeak ordezkatzen ditu Zuzendaritza Batzordean.

2. 2018an EGINDAKO JARDUERAK

2.1. Etengabeko prestakuntza: Hizketaldiak-Hitzaldiak

Arduraduna: Jose Luis Sansinenea

Kideak: Mari Carmen Zarate, Begoña Maneiro, Juan Mari Pérez, Juan Luis Pérez Mateo, Isabel Agirre.

2018. urtean zehar, aurreko urteetan bezala, hainbat hitzaldi antolatu dira gure bazkideei askotariko prestakuntza eta prestakuntza atsegina eskaintzen ahalegintzeko helburuaren barruan.

Hitzaldiak bi areto hauetan eman dira: Topalekun eta Okendo kulturetxean, aurreko urtean bezala. Salbuespen gisa, 6 hitzaldi San Ignazio elizan egin behar izan ziren, Okendon gertatuko sute txiki bat dela-eta.

Azken hiruhilekoan aldatu egin da hizlarien eta gaien baloraziorako galdetegiak jasotzeko sistema. Hiruhilekoaren amaieran jaso beharrean, hilaren bukaeran biltzen dira, eta era horretara, parte hartzaile gehiagok parte hartu dute gure ustez hain beharrezkoa den lan honetan.

Aurten berriro ere, atal honetan bi ezaugarri izan dira nabarmentzekoak, askotariko gaiak eta hizlariak, eta ohiko hizlariez gain gure forura hizlari berriak ekartzeko ahalegina.

Hizlari berrietako batzuk aipatzearrean, 2018. urtean honako hizlari berri hauek parte hartu dute: Harkaitz Cano, Juan Antonio Alduncin, Josu Etxezarraga, Hugo García, Isabel Mellen, Mertxe Urteaga, Koldo Aulestia, Ana Sanchez Lassa, Luis Martinez Artola, Ion Arrieta, Alberto Apodaca, Carlos Yuste, Veronica Pazos, Lola Orcajo, Jesús Lizarraga, Adolfo Uriarte, Ramón Prieto, Iñaki Egaña, etab. Hizlari berriak erakartzeko bidetik jarraitzea da gure asmoa.

2018ko 4. hiruhilekoari buruzko ebaluazioaren datuak (2018-2019 ikasturtearen 1. Hiruhilekoa)

2017/2018 ikasturtean izena eman dutenak, guztira: 243 pertsona

2018ko 4. hiruhilekoan 2.653 lagunek parte hartu zuten, hau da, batez beste 140 pertsona eguneko, izena eman dutenen % 57,46.

Jasotako balorazio galdetegiak: 81. Okendo KEan 48 eta Topalekun 33.

Hizlariei buruzko batez besteko balorazioa 7,73koa izan da, gehienekoa 10 izanik; balorazio handiena 9,07 izan da eta txikiena 4,95.
Gaiari buruzko batez besteko balorazioa 7,88koa izan da, gehienekoa 10 izanik; balorazio handiena 8,73 izan da eta txikiena 6,11.
Hitzaldien programazioa honako izan da (Okendoko egutegia):

2018ko 1. HIRUHILEKO PROGRAMAZIOA

FECHA DATA	TEMAS/GAIAK	PONENTES/HIZLARIAK	
18-1-9	**CONJUNTA. ESPAÑA: UN ESTADO PLURINACIONAL ?**	**Asier Blas**	**Doktorea zientzia politikoetan eta administratiboetan**
18-1-10	**CINE Y LITERATURA: ACORDES Y DESACUERDOS**	**Harkaitz Cano**	**Zientzia Politikoen lizentziaduna**
18-1-16	**IGNACIO DE LOIOLA, RENACENTISTA O MEDIEVAL COMO FUNDADOR DE LA COMPAÑÍA DE JESÚS**	**Jose Luis Orella**	**Erdi Aroko Historiaren Katedraduna**
18-1-17	**IGNACIO DE LOIOLA, HOMBRE DE SU TIEMPO CONTRARREFORMISTA**	**Jose Luis Orella**	**Erdi Aroko Historiaren Katedraduna**
18-1-23	**RETOS DEL ENVEJECIMIENTO**	**Carlos Calderón**	**Medikuntzako Doktorea eta Soziologian**

			Lizentziaduna
18-1-24/30	**EL LIBRE ALBEDRIO**	**Jesús Arizabaleta**	**Filosofiako irakaslea**
18-1-31	**EVOLUCIÓN DEL UNIVERSO**	**Juan Antonio Alduncin**	**Aranzadi Elkarteko kidea, Astronomia saila**
18-2-6/7	**VISIONES FUTURISTAS: PENSAR Y ACTUAR AHORA CON SENTIDO PRÁCTICO PARA UN FUTURO DESEABLE**	**Nicanor Ursua**	**Filosofiaren katedraduna**
18-2-13/14	**LA EVOLUCIÓN POLÍTICA DE LAS TIERRAS VASCAS EN LA EDAD MEDIA**	**Josu Etxezarraga Ortuondo**	**Historian Doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatean**
18-2-20	**EL ARTE ROMANICO EN EL PAÍS VASCO**	**Hugo García**	**Artearen Historian lizentziaduna**
18-2-21	**EL ARTE GOTICO EN EL PAÍS VASCO**	**Isabel Mellén**	**Filosofian lizentziaduna eta Arteren Historian graduatua**
18-2-27	**EL NACIMIENTO DE LAS VILLAS VASCAS**	**Mertxe Urteaga**	**Arkeologian doktorea**
18-2-28	**LA GUERRA DE BANDOS EN EL PAIS VASCO DURANTE LA BAJA EDAD MEDIA**	**Josu Etxezarraga Ortuondo**	**Historian doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatean**
18-3-6	**POTOSÍ**	**Ander Izagirre**	**Kazetaria eta idazlea**
18-3-7	**RITOS FUNERARIOS EN EL PAIS VASCO**	**Iñaki Olaizola**	**Antropologia Sozialean doktorea**
18-3-13	**CONVIVIR CON EL ALZHEIMER**	**Koldo Aulestia**	**Alzheimerdunen Senideen Elkarteko lehendakaria (AFAGI)**
18-3-14	**CONJUNTA. VIENTRES DE ALQUILER, MUJERES PARA DESEOS. ¿Y LOS DERECHOS PARA LAS MUJERES?**	**Garbiñe Biurrun**	**Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gizarte Arloko Lehendakaria**

18-3-20	**LOS MICROBIOS QUE HABITAN ENTRE NOSOTROS**	**Unai Ugalde**	**Biokimikan eta Biologian Doktorea**



2018 IKASTURTEKO 2. HIRUHILEKO PROGRAMAZIOA

FECHA DATA	TEMAS/GAIAK	PONENTES/HIZLARIAK	
18-4-10	**CONJNTA. LA RENTA BÁSICA UNIVERSAL**	**José Ramón Mariño**	**Ekonomista**
18-4-11	**EMILIA PARDO BAZAN. UNA MUJER INOPORTUNA EN PLENOS SIGLO XIX**	**Ana Merino**	**Filologia Hispanikoan Lizentziaduna**
18-4-17/18	**GOYA. PINTOR DE LA MODERNIDAD**	**Ana Sanchez Lassa**	**Arteko Historialaria. Bilboko Arte Ederretako Museoaren Kontserbatzailea**

18-4-24	**BUCEO CON ESCAFANDRA**	**Luis Martinez Artola**	**Urpekaritzako irakaslea**
18-4-25	**EL DOLOR DESDE UNA PERSPECTIVA**	**Adolfo López de Muniain**	**Mediku neurologoa**
18-5-2	**CONTAMINACION ACUSTICA Y DEL AIRE**	**Jose Antonio Meoqui / Carlos Pérez Olózaga**	**Kimikariak**
18-5-8	**CURIOSIDAD HUMANA Y ALEGRÍA DE VIVIR**	**Jexux Mari Mujika**	**Filosofian eta Geografian eta Historian lizentziaduna**
18-5-9	**LA HIDALGUIA UNIVERSAL DE LOS VASCOS**	**Ion Arrieta Alberdi**	**Historialaria, jurista eta katedraduna EHUn**
18-5-15	**VIVALDI Y SU EPOCA: EL BARROCO MUSICAL EN LA VENECIA DEL SIGLO XVIII**	**Sergio Pedrouso**	**Musika Zuzendaria**
18-5-16	**CONJUNTA. PABLO SOROZABAL, VIDA Y OBRA**	**Carlos Benito**	**Medikua**

2018 IKASTURTEKO 4. HIRUHILEKO PROGRAMAZIOA

FECHA DATA	**TEMAS/GAIAK**	**PONENTES/HIZLARIAK**	
18-10-9	**CONJUNTA. JUSTICIA Y UNIÓN EUROPEA: ENTRE LUXEMBURGO Y ESTRASBURGO**	**Juanjo Alvarez**	**Nazioarteko Zuzenbide pribatuko katedraduna**
18-10-10	**VISIONES FUTURISTAS: PENSAR Y ACTUAR AHORA CON SENTIDO PRACTICO PARA UN FUTURO DESEABLE (2ª PARTE)**	**Nicanor Ursúa**	**Filosofiako katedraduna**
18-10-16/17	**PALABRAS CLAVE EN EL ARTE DE NARRAR**	**Luisa Etxenike**	**Idazlea**
18-10-23/24	**EL TRIBUNAL DE LA INQUISICION**	**Mikel Aramendi**	**Filologoa eta esatari politikoa**
18-10-30	**EL CAMBIO CLIMATICO EN NUESTRA COSTA: HAY QUE**	**Adolfo Uriarte**	**Geologoa eta Ozeanografiako**

	ECHARSE AL MONTE ?		**doktorea**
18-10-31	**100 AÑOS DE LA REVOLUCION RUSA**	**Carlos Yuste**	**Historian lizentziaduna**
18-11-6	**AGIFES, UN ACERCAMIENTO A LA SALUD MENTAL**	**Veronica Pazos**	**Gizarte langilea eta Agifeseko arduraduna**
18-11-7	**COMPONENTE EMOCIONAL DEL CANCER**	**Juan Sanchez Vallejo**	**Mediku psikiatra**
18-11-13/14	**SIGLO XVII: INICIO Y DESARROLLO DE LA OPERA EN EUROPA**	**Marina Lertxundi**	**Musikan lizentziaduna eta Zarauzko Udal Musika Eskolaren Zuzendaria**
18-11-20	**LA MUSICA EN EL CEREBRO**	**Jose Felix Martí Massó**	**Mediku neurologoa eta Neurologiako Katedraduna EHUn**
18-11-21	**JUAN SEBASTIAN ELKANO, UN HOMBRE EXTRAORDINARIO**	**Alberto Apodaca**	**Historialaria-saiakeren eta historia eleberrien idazlea**
18-11-27	**LOS PALACIOS DE MIRAMAR Y AIETE, VALIOSO PATRIMONIO DONOSTIARRA**	**Lola Horcajo**	**Geografia eta Historian Lizentziadu na Deustuko Unibertsitat ean**
18-11-28	**MEDICINA TRADICIONAL DE CHINA Y JAPON**	**Susanne Pfeifer**	**Medikuntza konbentzionalean lizentziaduna eta naturista. Akupuntorea**
18-12-4	**LA IMPORTANCIA DE LOS COMPLEMENTOS FONETICOS EN LA ESCRITURA JEROGLIFICA EGIPCIA**	**Carlos Almorza**	**Historian doktorea eta Aranzadiko Ikertzailea**
18-12-5	**BANDOS Y ROSAS DE SANGRE. EL OTOÑO DE LA EDAD MEDIA VASCA Y SU CONTEXTO INTERNACIONAL (1400-1512)**	**Carlos Rilova**	**Historia Modernoko eta Historia Garaikideko lizentziaduna**
18-12-11	**SISTEMAS DE PENSIONES, PRESENTE Y FUTURO**	**Ramón Prieto**	**KUTXAko Kapital Merkatuaren arduradun ohia**

18-12-12	**DONOSTIA 1813**	**Iñaki Egaña**	**Euskal Memoria Fundazioaren Lehendakaria**
18-12-18	**CIBERSEGURIDAD, ¿DEBEMOS ESTAR PREOCUPADOS ?**	**Jesús Lizarraga**	**EHUko Ingeniari Teknikoa Informatikan Mondragon Unibertsitatean**
18-12-19	**CONJUNTA. LA INDEPENDENCIA DEL PODER JUDICIAL**	**Garbiñe Biurrun**	**Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gizarte Arloko Lehendakaria**



2.2. HITZALDIAK EUSKARAZ

Jarduera honen arduraduna **Eva Esnal** izan da 2018. urtean, eta harekin batera, **Jose María Uranga** aritu da lanean.

Hilean behin egiten dira hitzaldiak, hirugarren ostegunean oro har; aurten Irteera Kulturalen egutegia hartu dugu kontuan, bi jarduerak ez zitezen egun berean izan. Lugaritzeko Kultur Etxean egiten dira.

Euskarako ezagutzak sakondu nahi dituzten bazkideek parte hartu ohi dute. Jarduera hau laguntza handikoa da Euskarako ezagutzak zabaldu nahi dituztenentzat. Bestalde, lagungarria da elkartearen helburu hau lortzeko: "Gaitasun mentalari eta bizitza osoan

zehar ikasteko gaitasunari, etengabeko prestakuntzari alegia, eustea, eta taldeko jarduerak egitea, aisiaren kudeaketa eta garapen emozional osasungarria".

Gaiak eta hizlariak batzordeko bi kideek hautatzen dituzte. Aurretik, parte hartzaileekin hitz egiten dute, jakiteko zer gai interesatzen zaizkien eta ikusteko badagoen hitz egiteko prest dagoen hizlariren bat, euskaraz ondo hitz egiten duena.

Hizlariak gaia garatzen du, eta proiektoreko irudiez laguntzen dituzte gehienetan azalpenak, era horretara errazagoa baita azalpena ulertzea. Ondoren, eztabaidak egiten dira, galderak, iritziak...

Goizeko saioarekin amaitzeko, pintxo bat hartzen dugu inguruko tabernan elkarrekin, eta han jarraitzen dugu hizketan eta taldeko kideen arteko lotura afektiboak sendotzen.

EGITASMOA:

- **GUREAK EZAGUTUZ - Rakel San Sebastiań Begiristain.**
  - Parte hartzaileak 21. Emakumezkoak 18 Gizonezkoak 3
  - Balorazioa: Gaia 8,5 Hizlaria 8,6
  - Denbora: Nahikoa 21

- **BISITA GIDATUA. SUKALDE GUREA (Hernani) Auxtin eta Laura**
  - Parte hartzaileak 21. Emakumezkoak 14 Gizonezkoak 7
  - Balorazioa: Bisita 9,1 Hizlaria 8,5
  - Denbora: Gutxi 5 Nahikoa 16

- **“Lehenengo Karlistaldia Beterrin" Jon Unanue Lopez**
  - Parte hartzaileak 15. Emakumezkoak 9 Gizonezkoak 6
  - Balorazioa: Gaia 8,6 Hizlaria 6,6
  - Denbora: Gutxi 3 Nahikoa 10

- **Landareen bizimodua eta kontsultategia. Jakoba Errekondo Saltsamendi.**
  - Parte hartzaileak 24. Emakumezkoak 19 Gizonezkoak 5
  - Balorazioa: Gaia 8,5 Hizlaria 9,3
  - Denbora: Oso gutxi 1. Gutxi 6. Nahikoa 16. Asko 1

- **BISITA gidatua Sagarraren Etxera-Astigarraga**
  - Parte hartzaileak 28. Emakumezkoak 19 Gizonezkoak 9
  - Balorazioa: Gaia 9 Hizlaria 8
  - Denbora: Nahikoa 28

- **Egiptoar idazketa. Ezaugarri nagusiak. Karlos Almorza**

- Parte hartzaileak 18. Emakumezkoak 11 Gizonezkoak 7
- Balorazioa: Gaia 6,7 Hizlaria 6,4
- Denbora: Nahikoa 18

- **Egunsentia alferrentzat. Ibilaldi goiztiarra Alhzeimerrerakin. Andoni Tolosa Goikoetxea-**
  - Parte hartzaileak 18. Emakumezkoak 12 Gizonezkoak 6
  - Balorazioa: Gaia 9. Hizlaria 9,2
  - Denbora: Nahikoa 18

- **Gernikatik gatoz. 36ko gerrari buruzko hainbat ohar. Memoria Kulturala. Alexande Gurrutxaga Muxika.**
  - Parte hartzaileak 17. Emakumezkoak 11 Gizonezkoak 6
  - Balorazioa: Gaia 9,4 Hizlaria 9,4
  - Denbora: Nahikoa 16. Gutxi 1.



Azpimarratu nahi dut Helduen Hitzako bazkide askoren jarrera, ideia asko eta laguntza handia eman baititate. Lehenengo aldia da era honetako lana egiten nuela, eta oso babestuta ikusi dut nire burua.

2.3. Euskararen ikaskuntza

Euskarako Batzordeko kideak:

Elena Arrieta, Iñaki Lasa, Ramón Leturiondo, Juan Mari Pérez, Mari Carmen Zuaznabar, Mari Carmen Zubiaurre, Jose Mari Uranga eta Eva Esnal.

Euskarako eskolak Topalekun zein Okendoko Kultur Etxean ematen dira, hitzaldiak amaitu eta gero, hau da, astearte eta asteazkenetan, 12etatik 13etara, leku berean. Topalekun bi areto erabiltzen dira.

TOPALEKU:

- 1. Maila.- Juan Mari Perez 9 ikasle
- Mintzapraktika. M. Carmen Zubiaurre eta M. Carmen Zuaznabar. Txandaka daramate taldea. 4 ikasle

"Bakarka" metodoa erabiltzen dute eta Mintzapraktikan euskarazko hainbat artikulu eta eleberri irakurtzen dituzte.

OKENDOKO KULTUR ETXEA:



- 1. maila. Elena Arrieta 5 ikasle
- 2. maila. Iñaki Lasa 8 ikasle
- 3. maila. Ramón Leturiondo 11 ikasle
- Mintzapraktika.- 5 ikasle M.Jose Irizar eta Dorleta Atorrasagasti.

Ikasturte hasieran laguntza eskatu genuen Batzarrean Euskarako eskoletarako, eta 6 lagunek eman zuten izena eta jardun dute lanean lankidetzan. Koro Garmendia eta Esther Zabaleta Ramónen taldean, Miren Zaldúa, Mertxe Larrañaga eta Antxon Irizar Dorletarekin batera Mintzan.

Erabiltzen den metodoa "Bakarka 1 eta 2" da, nahiz eta erabiltzen diren horiez gainera, osatzeko, aldizkarietako eta egunkarietako artikuluak, liburu eta eleberrietako pasarteak, zenbait fotokopia.



Guztira, 43 ikaslek parte hartu dute, eta oso gustura daude beren irakasleekin. Etengabe hitz egiten dugu beraiekin jakiteko zer premia dituzten eta zer asebetetze maila duten.

Aurten, EUSKARALDIA antolatu da Euskal Herria osoan: 11 egunez Euskararen erabilera sustatzeko ekimena, hain zuzen ere, azaroaren

23tik abenduaren 3ra. Zenbait egun lehenago, BAGERAko Idoia Trenor gonbidatu genuen, ekimenaren nondik norakoak azaltzeko. Oso harrera ona izan zuen. Ikasle eta irakasle talde oso politak parte hartu zuen ekimenean, ilusio handiarekin.

Kantu Eguna ere ospatu da; bezperan abestien hitzak ematen zaizkie euskaraz eta itzulpena gaztelaniaz, uler ditzaten hitzak eta hobetu abestu dezaten. Joxean Jauregi da arduraduna. Gure kultura ezagutzeko eta helarazteko modu bat da.

Aipatu beharra dago irakasle guztien lan altruista eta jartzen duten ilusioa; horietako batzuk udan ere ematen dituzte eskolak.

2.4. Bidezidorrak

Iritsi zaio Bidezidorreko Batzordeari ekimenari buruz hausnarketa egiteko garaia. Urtero bezala, irtenaldien egitarauak, partaidetza, giroa, ibilbide berriak e.a. azalduko ditugu ondoko orrialdeetan.Hasteko, *Batzordea* osatzen duten lagunen zerrenda ezarriko dugu.

Arduraduna: ***Antton Arruti***

Batzordekideak: ***Manu Agirre, Felix Aristi, Mertxe Argarate, Santi Briñas, Enrique Cercadillo, Mertxe Fernandez, Mariaje Lizarazu, Jon Puy eta Karmen Zubiaurre.***

Beraz, iazkoarekin alderaturik ez dago inongo aldaketarik, hamar lagun berberok jarraitzen dugu. Zenbaitek pentsatzen du mesedegarria litzatekeela sartu berriek, gehienak gu baino gazteagoak, ideia berri eta aberatsak ibiltarion aurrean azal ditzaten. Gure ideiak agortu samar dira dagoeneko, eta komenigarria ikusten da aldaketa. Gu beti laguntzeko prest izango gara edozein zalantzaren aurrean.

PARTAIDETZA

Urtero legez, lau taldetan banaturik daude ibiltariak eta binaka burutzen dira irtenaldiak. Asmoa beti izan da harremanak ahalik eta zabalenak izatea gure artean eta, honenbestez, txandaka, koloreen arabera, egituratzen dira.

2016. urtean 147 ibiltari ginen, 2017an 162 eta aurten 196, honela banaturik:

Taldeak			
URDINA	**ZURIA**	**GORRIA**	**BERDEA**
16 gizonezko	16 gizonezko	15 gizonezko	13 gizonezko
33 emakumezko	35 emakumezko	33 emakumezko	35 emakumezko

51 guztira	51 guztira	48 guztira	48 guztira
Ibiltarion kopurua: 196koa da. 136 emakume =%69,4; 60 gizon = %30,6			
2017		**2018**	
Gizonak	Emakumeak	Gizonak	emakumeak
50	112	60	136

Aurten ere utzi dutenak badira, baina dezente gehiago hasi direnak. Badakigu gure egoera nolakoa den eta nola alda daitekeen egun batetik bestera. Gure helburuak, batez ere, harremanak sortzea, bizitza ahalik eta osasuntsuena izatea eta giroa zaintzea dira.

Lau hiruhilabeteko partaidetzari dagokionez, ondoko taulan azalduko dugu. Datuak gutxi gorabeherakoak dira, baina Batzordearentzat erreferentzia dira erabakiak hartzeko orduan.

Irtenaldi bakoitzeko batez bestekoa:

Lehen hiruhilabetea	Bigarren hiruhilabetea	Hirugarren hiruhilabetea	Laugarren hiruhilabetea
40 emakume 19 gizon Guztira: 59	37 emakume 16 gizon Guztira: 53	22 emakume 11 gizon Guztira: 33	34 emakume 22 gizon Guztira: 56

Partaidetza zertxobait igo da aurten. Datuen arabera, argi ikus daiteke ibiltarioi udan, oporraldia dela, bilobak direla, beroa dela, ibilbideak direla edo, gutxiago atsegin zaigula bidezidorretan ibiltzea.

IBILBIDE BERRIAK

Aurtengo udan Batzordeak zenbait ibilbide berri egin edo egiaztatu ditu, ondorengo urtean gauzatzeko. Honakoak izan dira aurtengoak:



Talde urdina

1.- (DB-02) Aretxabaleta-Urkulu-Aozaratza-Aretxabaleta Zailtasuna: ▲(Laugarren hiruhilekoan egin genuen guztiok)

2.- (K-21) Aia-Pagoeta-Laurgain Zailtasuna: ▲▲▲

3.- (T-14) Billabona-Asteasu-Larraul-Asteasu-Billabona Zailtasuna: ▲▲

4.- (B-15) irun-Amute-Jaizubiako padurak-Plaiaundi-Irun Zailtasuna: ▲

5.- (U-10) Urteta auzoa (Zarautz)-Urdaneta-Aizarnazabal Zailtasuna: ▲▲▲

6,. (G-12) Urkillaga (Ataun)-Agauntza tontorra-Urkillaga Zailtasuna: ▲▲▲+

7.- (D-22) Donostia (Easo)-Aiete-Miramon (Erramunene)-Aiete Zailtasuna: ▲▲

8.- (V-06) Guardaetxea-Aralarko goiko zelaiak-Igaratza-Guardaetxea Zailtasuna: ▲▲

Hauez gainera baditugu beste bi gutxienez iaz egiaztatuak eta oraindik egin gabeak:

1.- (T-13) Berastegi-San Lorenzo-Berastegi Zailtasuna: ▲▲▲

2.- (U-06) Aizarna Gaina-Erdoizta-Santa Engrazia-Lorbide-Akua-Zestoa Zailtasuna: ▲▲



Talde **berdea**

Ondorengo orrialdeetan urteko egitarau osoa ezarriko dugu.

BIDEZIDOR KIROLA: 2018KO LEHEN HIRUHILEKO EGITARAUA

DATA	IBILBIDEAK	TALDEAK
2018-01-12	c) (G-01) Ormaiztegi-Lierni-Mutiloa-Lierni-Ormaiztegi (Geroratua)	ZURI-URDINAK

	d) (T-07) Anoeta-Hernialde-Alkiza-Anoeta (Geroratua)	BERDE-GORRIAK
2018-01-19	a) (D-18) Donostia-Lasarte-Donostia b) (B-14) Pasai Donibane-Jaizkibel-Hondarribia (Ibilbide osoa)	ZURI-BERDEAK GORRI-URDINAK
2018-01-26	3.- (B-04) Irun-Bera (Autobusa itzulerako)	GUZTIOK BATERA
2018-02-02	4.- (B-13) Lezo-Gaintxurizketa-Gurutze-Altzibar (Ibilbide berria) 5.- (K-06) Orio-San Pedro auzoa-Aia-Orio	BERDE-URDINAK ZURI-GORRIAK
2018-02-09	5.- (K-06 Orio-San Pedro auzoa-Aia-Orio 4.- (B-13) Lezo-Gaintxurizketa-Gurutze-Altzibar (Ibilbide berria)	BERDE-URDINAK ZURI-GORRIAK
2018-02-16	6.- (T-12) Tolosa-Aldaba Txiki-Langaurre-(Aldaba).Alegia (Ibilbide berria) 7.- (D-12) Igeldo-Aginaga-Txoko Alde-San Esteban-Usurbil	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2018-02.23	7.- (D-12) Igeldo-Aginaga-Txoko Alde-San Esteban-Usurbil 6.- (T-12) Tolosa-Aldaba Txiki-Langaurre-(Aldaba)-Alegia (Ibilbide berria)	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2018-03-02	8.- (U-03) Madarixa (Izarraitz)-Otarre gailurra-Madarixa (Autobusa joan eta etortzeko)	GUZTIOK BATERA
2018-03-09	9.- (T-01) Billabona-Zizurkil-Abeletxe-Andoain 10.- (G-02) Ordizia-Lazkaomendi-Ataun-Lazkao-Beasain	GORRI-URDINAK ZURI-BERDEAK
2018-03-16	10.- (G-02) Ordizia-Lazkaomendi-Ataun-Lazkao-Beasain 9.- (T-01) Billabona-Zizurkil-Abeletxe-Andoain	GORRI-URDINAK ZURI-BERDEAK
2018-03-	11.- (K-16) Zumaia-Elorriaga-Behatokia-Elorriaga-Zumaia (Bazkaria)	GUZTIOK BATERA



Talde **gorria**

BIDEZIDOR KIROLA: 2018. URTEKO BIGARREN HIRUHILEKO EGITARAUA

2018-04-13	a) (B-13) Lezo-Gaintxurizketa-Gurutze-Altzibar (Lehen hiruhileko ibilbide berria) b) (K-06) Orio-Aiako San Pedro auzoa-Aia-Orio	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2018-04-20	(D-07) Anoeta-Santa Barbara-Lasarte (D-10) Usurbil-Arratzain-Aingeru Guardakoa-Ibaeta	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2018-04-27	(V-05) Arantzazu-Urbia-Arantzazu (Ibilbide berria) (Goizaldi luzea: 08:00etatik 15:00etara, eta autobusa joan eta etortzeko)	GUZTIOK BATERA
2018-05-04	(D-10) Usurbil-Arratzain-Aingeru Guardakoa-Ibaeta (D-07) Anoeta-Santa Barbara-Lasarte	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2018-05-11	(T-11) Santutxo-Santa Marina-Santa Ageda-Bidania(Ibilbide berria) (K-14) Mutriku-Galdonamendi-Saturraran-Ondarroa-Mutriku	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2018-05-18	(U-07) Iraeta-Zestoa-Lasao-Azpeitia-Loiola-Azkoitia (Bazkaria Iturri jatetxean)	GUZTIOK BATERA
2018-05-25	(K-14) Mutriku-Galdonamendi-Saturraran-Ondarroa-Mutriku (T-11) Santutxo-Santa Marina-Santa Ageda-Bidania (Ibilbide berria)	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2018-06-01	(T-10) Tolosa-Izaskun-Ibarra-Belauntza-Leaburu-Tolosa (B-07) Irun-Lapitze auzoa-Gurutze-Oiartzun	URDIN-GORRIAK ZURI-BERDEAK
2018-06-08	(B-07) Irun-Lapitze auzoa-Gurutze-Oiartzun (T-10) Tolosa-Izaskun-Ibarra-Belauntza-Leaburu-Tolosa	URDIN-GORRIAK ZURI-BERDEAK
2018-06-15	(B-08) San Anton (Endara)-San Martzial-Irun (Autobusa joateko)	GUZTIOK BATERA
2018-06-22	(K-07) Orio-Itsaspe-Orio-Zarauzko Kanpina-Zarautz (D-02) Garbera-Santiagomendi-Astigarraga	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2018-06-29	(D-02) Garbera-Santiagomendi-Astigarraga (K-07) Orio-Itsaspe-Orio-Zarauzko kanpina-Zarautz	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK

BIDEZIDOR KIROLA: 2018. URTEKO HIRUGARREN HIRUHILEKO EGITARAUA

DATA	IBILBIDEAK	TALDEAK

2018-07-06	1.- (D-20) Donostia-Munto-Miramon Parkea-Aiete	DENOK BATERA
2018-07-13	2.- (T-06) Billabona-Amasa-Goiburu-Andoain	“
2018-07-20	3.- (B-12) Irun-Xantalen Baseliza-Hirugurutzeta-Ola sagardotegia-Fikoba	“
2018-07-27	4.- (P-23) Trintxerpe-Platako Itsasargia-Herri Ametsa-Mendiola-Herri Ametsa-Ulia-Donostia	“
2018-08-03	5.- (K-20) Zarautz-Santa Barbara-Askizu-Zumaia	“
2018-08-10	6.- (P-25) Donostia-Errondo-Añorga-Itsasalde-Añorga-Donostia (Ibilbide berria)	“
2018-08-24	7.- (G-04) Alegia-Beasain	“
2018-08-31	8.- (P-18) Gaintxurizketa-Jaizkibel-Pasai Donibane	“
2018-09-07	9.- (P-11) Donostia-Lasarte-Urnieta	“
2018-09-14	10.- (P-26) Orio (Ortzaika auzoa)-Txurruka hondartza-Orioko kaia-Arraun elkartea-Orio (Ibilbide berria)	“
2018-09-21	11.- (P-04) Igeldo (Kanpina)-Txakurtegia-Aginaga-Usurbil (Ibilbide laburtua)	“
2018-09-28	12.- (P-24) Errenteria (Agust.)-Zamalbide-Txoritokieta-San Marko-Lau Haizeta-Altza	“

Aste Nagusiko ostiralean ez da irtenaldirik izango

OHARRA

Aldez aurretik, astearteetan edo, ibiltari guztioi, korreo elektronikoz edo telefonoz, helaraziko zaizkizue ibilbidearen nondik norakoak, irteeraren ordu eta leku zehatza eta baita janzkeraren gomendioak ere.

Kontuan eduki behar duzue, udan gaudenez, edaria eta zerbait jateko eramatea komenigarria dela. Honetarako, bost edo hamar minutuko atsedenalditxoa egingo dugu

BIDEZIDOR KIROLA: 2018. URTEKO LAUGARREN HIRUHILEKO EGITARAUA

DATA	IBILBIDEAK	TALDEAK
2018-10-05	1.- (D-13) Igeldo-Txakurtegia-Arratzain-Igara kanpina- Ibaeta 2.- (P-15) Bost parketan zeharkako ibilbidea	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK

2018-10-19	2.- (P-15) Bost parketan zeharkako ibilbidea 1.- (D-13) Igeldo-Txakurtegia-Arratzain-Igara-Kanpina-Ibaeta	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2018-10-26	3.- (T-11) Santutxo-Santa Marina-Santa Ageda-Bidania (Ibilbide berria) (Autobusa joan-etortzeko)	DENOK BATERA
2018-11-02	4.- (P-17) Irun-Amute auzoa-Santiagotxo-Guadalupe-Hondarribia 5.- (U-08) Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-San Lorenzo baseliza-Zumaia	URDIN-GORRIAK ZURI-BERDEAK
2018-11-09	5.- (U-o8) Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-San Lorenzo baseliza-Zumaia 4.- (P-17) Irun-Amute auzoa-Santiagotxo-Guadalupe-Hondarribia	URDIN-GORRIAK ZURI-BERDEAK
2018-11-16	6.- (B-01) Arditurri (Tolaren bazkaria)	DENOK BATERA
2018-11-23	7.- (K-10) Zumaia-Deba 8.- (B-06) Donibane-Jaizkibel-Donibane	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2018-11-30	8.- (B-06) Donibane-Jaizkibel-Donibane 7.- (K-10) Zumaia-Deba	URDIN-BERDEAK ZURI-GORRIAK
2018-12-07	9.- (B-09) Oiartzun-Liztorreta-Santiagomendi-Astigarraga 10.- (G-09) Ataun (San Martin)-San Gregorio-San Martin-Lazkao-Beasain	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK
2018-12-14	11.- (DB-02) Aretxabaleta-Urkulu-Aozaratza-Aretxabaleta (Ibilbide berria) (Autobusa joan-etortzeko)	DENOK BATERA
2018-12-21	10.- (G-09) Ataun (San Martin)-San Gregorio-San Martin-Lazkao-Beasain 9.- (B-09) Oiartzun-Liztorreta-Santiagomendi-Astigarraga	ZURI-URDINAK GORRI-BERDEAK



Talde **zuria**

IRTENALDIAK

Aurten 46 irtenaldi burutu ditugu eta, egitarau hauek kontuan izanik, bi aldaketa egin ditugu. Batetik, Tolosaldeko autobusen greba iraunkorra zela eta, *Santutxo-Santa Marina-Santa Ageda-Bidania* irtenaldia dataz aldatu behar izan genuen eta *Lasarte* inguruko bat egin haren ordez. *Santutxo*koa laugarren hiruhilekora eraman eta hartan egin genuen; autobusean egin genuen joan-etorria. Bestetik, abenduaren 21ean, arduradunok ez ginen konturatu zer egun zen, San Tomas eguna, hain zuzen ere. Horrenbestez, egun horretako irtenaldiak bertan behera utzi eta hurrengo hiruhilekoan sartu genuen; haren ordez, *Donostiako zenbait auzotan zehar* ibilaldia egin genuen, bakoitzak nahi zuen lekuan geratu, eta txistorra eta ogia jateko moduan.

Lehen hiruhilekoa	Bigarren hiruhilekoa	Hirugarren hiruhilekoa	Laugarren hiruhilekoa
11 irtenaldi	12 irtenaldi	12 irtenaldi	11 irtenaldi

Ondorengo taulan, autobusaren erabilera, ibilbide berriak eta eginiko bazkariak aipatuko ditugu:

Hiruhilekoa	Autobusa	Ibilbide berriak	Bazkaria
Lehenengoa	Bitan	Bi	Zumaiako Be(he)ko Plazan
Bigarrena	Bitan	Bat	Azkoitiko Iturrin
Hirugarrena	Ez	Bi	Ez
Laugarrena	Bitan	Bi	Oiartzungo Tolaren

Ikus daitekeenez, egitarauak prestatzeko orduan, zonaldeen arteko oreka eta autobusaren erabilera ere izaten ditugu kontuan. Bestalde, bi ibilbide berri eta bazkari bat antolatzen ditugu hiruhilekoko. Salbuespena beti udako hiruhilekoa izaten da. Horretan, ibilbide labur eta hurbilagoak jartzen ditugu, eta ez dugu bazkaririk egiten, ez autobusik erabiltzen. Aurreko orrialdean Batzordearen aurkezpena egin dugu. Hamar lagun gara guztira, eta bakoitzak badaki zertaz arduratu behar duen. Betebeharrak dezente dira, baina uste dugu nahiko ondo banatzen ditugula ekimenak. Horien artean, ondorengoak ditugu: mendiko asegurua, hiruhileko egitarauak, aste bakoitzeko irtenaldiaren abisua, jatetxeen zerrenda eta asteroko deia, botikinaren ardura, ibilbideen ezagutza, hileroko bilera, Web orrialdearen erabilera, autobusen enkargua, bazkariena, ibilbide berrien egiaztatzea, etab.

Aurten, ikusirik Goierriko mendizaleak elastiko berdea zeramatela Aralarreko topagunean, bururatu zitzaigun gure egitea hura, eta Helduen Hitzako anagramarekin ehun elastiko inguru eskatu ziren. Hasiera batean, gizon mendizale baten itxura jartzea etorri zitzaigun burura, baina kontuan harturik gure ibiltarien % 70 emakumeak direla, horien irudia jartzea erabaki genuen.

Urtez urte ibilbideen kopurua gorantz doa, berriak egiten jarraitzen baitugu, eta aurten 131 izatera iritsi gara.

IBILBIDEAK, KODEAK ETA EREMUAK

EREMUA	KODEA	ZENBAKIAK	KOPURUA
DONOSTIALDEA	(D-)	(D-1)...(D-22)	22
KOSTALDEA	(K-)	(K-1)...(K-21)	21
UROLALDEA	(U-)	(U-1)...(U-10)	10
GOIERRIALDEA	(G-)	(G-1)...(G-12)	12
TOLOSALDEA	(T-)	(T-1)...(T-14)	14
DEBABARRENA	(DB-)	(DB-1)...(DB-3)	3
BIDASOALDEA	(B-)	(B-1)...(B-15)	15
ZENBAIT	(V-)	(V-1)...(V-6)	6
IBILBIDE LABURRAK	(P-)	(P-1)...(P-28)	28

GOGOETA

Ikusten ari gara ibiltarion kopurua etengabe doala gorantz. Eta hori ez da sekula txiripa izaten. Arrakastaren zergatia ibiltari bakoitzaren partaidetzan datza, eta baita taldearen barruan sortzen den giroan ere. Hori ona da, ibiltariak bere alde onena jartzen duelako. Batzordearen lana ibiltariak epaitu behar du, baina nahiz eta hori garrantzitsua izan, axola gehiago digu ibiltarien erantzunak, eta orain artekoa ezin hobea izan da.

Beraz, Bidezidor Kiroleko Batzordearen aldetik, mila esker horrelako jarrera lagunkoia izateagatik, eta ea horrela jarraitzen duen giroak.

Izugarri ikasi dugu urte hauetan guztetan, eta talde lana funtsezkoa dela ohartu gara. Protagonismoak, gure adinean batez ere, ezer gutxirako balio du, eta kaltea besterik ez dakarkio horrela jokatzen duenari. Ahal dugun guztia jartzen badugu gauzak hobetzeko, zalantzarik gabe, ekimenak arrakasta izango du.

Amaitzeko esan behar dugu ostiral gehienetako kronikatxoak eta argazkiak Helduen Hitzako Webgunera bidaltzen ditugula koadernoetan eraturik. Badira, dagoeneko, hogeita hamar bat osaturik.

Ondoren, adibide gisa, zenbait kronikatxo jarriko ditugu.

Donostiako zenbait auzotan zehar

Baserritarrak hirira jaitsi
hala omen historia,
zorrak kitatu nagusi jauna!
bazeukaten memoria.
Jende xumeak beti izan du
ekonomi eroria,
egun honetan jaten baitzuten
txorizo eta ogia.

Beasain-Ordizia-Lazkao-Ataun-(San Martin-San Gregorio-San Martin

Beasainera heldutakoan
autobus txikiegia!
gure tamaina ikusi eta
ez zen sartuko erdia.
Pelotoiaren aurre-aurrean
jarri zitzaigun erbia,
marka guztiak hausteko asmoz
Mariaje gidaria.

Oiartzun-Arditurri-Oiartzun

Ibiltariok egingo gara
bidegorriaren jabe,
txirrindak nola pasako dira
hona inor mindu gabe?
Aiako Harria goiko aldean
Pirineoko zutabe,
sabel barneko orroak dio
hortxe duzue Tolare!

Irun-Santiagotxo-Guadalupe-Hondarribia

Zenbait kasutan leku-izenetan
ikus daiteke *ibia*,
Urdan*ibia*, Hondarr*ibia*
eta Astigarr*ibia.*
Beho*bia* hor, Mandu*bia* han
Zald*ibia*, Ast*ibia*,
hau desagertu eta ondoren
azalduko da *zubia*.

Aretxabaleta-Urkulu-Aozaratza-Aretxabaleta

Laurogeita hirugarrenean
eraiki zen urtegia,
leku bareak lasaitzen gaitu
horixe bada egia.
Ibiltariak une honetan
erne jarri du begia,
bere aurrean azaldu baita
Otalora jauregia.

Lasarte-Txikierdi-Zubieta-San Esteban-Zubieta-Lasarte

Ibiltariak gure atzetik
lasai doaz berriketan,
batak besteei kontatzen die
zer egin zuen gaztetan.
Hauek, ordea, erantzun gisa
zer egin duzu zaharretan?
berritsuena gehientsuetan
isiltzen da aldapetan.

Zumaia-Deba

Jaiki ondoren sumatu dugu
ari zuela euria,
hau ikusirik ohean sartu
eta itzali argia.
Hau da zenbaitek egin duena
ongi pentsatzen jarria,
hanha sartzea egin baitigu
aparta eguraldia.

Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-Zumaia

Itsas lehoiak lagunak omen
Argentinan ezagutu,
han bortitzenak eme aurrean
estaltzeko nagusitu.
Etengabeko zirimirian
jendea ez da damutu,
Ibañarrietan aldapa gora
aipatua ez da mutu.

2.5. Ibilaldiak- Ibilbide osasungarriak

ARDURADUNA: Raquel Aierdi

BATZORDEA: Ana Aierdi, Jesús Claramunt, Luis Felipe Hernández, Ana de Miguel, Daniel Alkorta eta Luis Mª Cívico.

Jarduera hau 2015. urtean sortu zen, asmo argi batekin, hain zuzen ere irteera ematea elkartean sustraitua dagoen zaletasunetako bati, ibiltzeko zaletasunari.
Jarduera guztiz sendotu da, eta 70 lagunek baino gehiagok eman dute izena; horietatik ehuneko 30ek parte hartu ohi dute maiztasunez.

Gure paisaia ederrez gozatzen dugu, eta kirolaren eremu honetan antzeko gustuak eta zaletasunak dituzten elkarteko beste bazkideekin erdibanatzen ditugu hamaiketakoak.

2018an jarduerarekin jarraitu dugu, baita oporretan ere, baina hainbat aldaketa egin ditugu: ibilbide gehiago, aukera gehiago, itsas ertzean edo Donostiaren inguruan, edo urrunago: Lasarte, Astigarraga, Urnieta, Hernani, Zarautz, Pasaia, Hondarribia, Errenteria...

Handitu egin da ibiltari kopurua, antolamendua hobetu egin da, ibilbide gehiago daude, adiskidetasun handiagoa... 2018ko azken hiruhilekoan batzorde berri bat osatu zen, jardueraren ondoriozko zeregin guztiei aurre egin ahal izateko: ibilbide berriak, gidak, oharrak, hamaiketakoak, klimatologia, garraioen ordutegiak ibilaldi batzuetan



joateko eta ia gehienetan itzultzeko...

Astero bidaltzen dira ibilbideei buruzko oharrak posta elektronikoz edo WhatApp sare sozialaren bitartez, ibilbideari, ordutegiari, behar diren garraiobideei, klimatologiari, hamaiketakoaren lekuari… buruzko informazioarekin.
Denok hain beharrezkoa dugun taldeen eta parte hartzaileen arteko adiskidetasunaren mesedetan, bazkari bat egiten da, hiru hilez behin; ez da beti leku berean izaten, menuak aberatsak izaten dira, eta prezio onean. Era horretara, egun atsegina igarotzen dugu, eta aukera izaten dugu taldeko kideen artean adiskidetasun loturak sendotzeko.

Eguraldia gorabehera, astelehenetan batez beste 12-30 lagunek parte hartzen dute. Eguraldiarekin zorte ona edukitzen dugu, eta baita ausardia handia ere irteteko, eguraldia kontra jartzen denean. Oso giro atsegina egoten da, eta ez da erraza izaten joan gabe gelditzea “arrazoi txiki” horien ondorioz.
Jardueraren laburpen gisa esan liteke, beraz, jarduera etengabe ari dela hazten hiruhilekotik hiruhilekora, eta batzordean jarduera hobetzeko nahia eta asmo argia dugu (adiskidetzea, ibilbideak, giroa…). Hori guztia, dagoeneko “neska-mutiko” ez diren Helduen Hitzakoek gure zaletasunekin jarraitzeko aukera izan dezagun egunez egun. Azken batean, IBILALDI OSASUNGARRIetan naturaz gozatzen dugu, konpainia ezin hobean gainera.

Ondoren, IBILALDI OSASUNGARRIAK jardueran egiten ditugun zenbait ibilbide azaltzen ditugu, adibide moduan:

1. Behin baino gehiagoan egin dugu Grosetik Pasai San Pedrorako bidea eta Pasai Donibanera igaro gara gero; eta baita alderantziz ere, bazkaria barne.
2. Amarako topoko geltokitik Hernanira joan gara, Loiolatik eta Martutenetik barrena, hainbat ibilbide eginez.
3. EASO PLAZA - LASARTE: Topoan joan Lasartera, eta, handik, Zubietatik Usurbilera eta itzuli. Noizbait, Lasartetik oinez itzuli gara
4. ZARAUTZ - GETARIA - ZARAUTZ: Topoa Easo Plazatik Zarautzera, malekoitik Getarira, eta aldapan, berriro Zarautzera, malekoitik.
5. SAGASTIEDER PLAZA - AMETZAGAINA – ASTIGARRAGA
6. OKENDO K.E. - MARTUTENE - AMARA ZAHARRA
7. GALARRETA - URNIETA
8. AMARA - FICOBA - HONDARRIBIA: Topoa Ficobara (Irun). Hendaiara igarotzea. Itsasertzeko pasagunea Hendaiako kirol portura. Txalupa Hondarribira.
9. DONOSTIA - OIARTZUN: Trena Oiartzuna, eta bidegorritik Arditurrira. Tolarea eta hiruhileko bazkaria.

Jarduera honen bitartez solidaritatearen, adiskidetasunaren eta hain premiazkoak diren beste balio batzuk sustatzen eta garatzen dira. Esan beharra dago oso giro ona dagoela jarduera honetan parte hartzen dutenen artean.

2.6. Literatura Tertuliak

Arduraduna: Carmen García Viscarret

Hamar urte badira jarri zela jarduera hau abian Helduen Hitzan, eta gaur egun oraindik ere atsegin dute bazkideek. Hilean liburu bat irakurtzea eta, ondoren, gure iritziak gainerako parte hartzaileekin oso giro atseginean partekatzea, oso atsegingarria da, eta are gehiago gaur egun, hain bizimodu bizkorra daramagun honetan. Bi taldetan banatu gara, A eta B, eta horietako bakoitzean 20 lagun elkartu gara. Hileko azken bi astelehenetan elkartzen gara, arratsaldeko 4,30etik 6etara, Topalekun.

José Domingo da tertulia horien dinamizatzailea. Bera arduratzen da liburuak hautatzeaz, eztabaida zuzentzeaz, esku hartzeez eta lanaren eta egilearen azterketa literarioa egiten du. Tertulian ez dugu literaturaz soilik hitz egiten, izan ere, liburuaren gaiaren eta giroaren eta garaiaren arabera, beste hainbat gairi buruz ere egiten dugu eztabaida, parte hartze handia egoten baita bertaratzen direnen aldetik.

Ikasturte honetan elkarren oso desberdin diren hiru euskal idazle irakurri ditugu, haien sormen lanetara hurbildu gara eta nazioarteko gaur egungo beste egile batzuk ere ezagutu ditugu. Askotariko gaiak landu ditugu, eta parte hartzaileek oso modu positiboan baloratu dute egitaraua:



2018 urtea	IZENBURUA	EGILEA
Urtarrila	“LA CENA”	Herman Koch
Otsaila	“EL HIJO DEL ACORDEONISTA”	Bernardo Atxaga
Martxoa	“VESTIDO DE NOVIA”	Pierre Lemaitre
Apirila	“MUSICA EN EL AIRE”	Karmele Jaio
Maiatza	“LAS AVENTURAS DE TOM SAWYER”	Mark Twain
Ekaina	“LA DELICADEZA”	David Foenkinos
Urria	“CHICAS FELIZMENTE CASADAS”	Edna O`Brien
Azaroa	“HOMBRES SIN MUJERES”	Haruki Murakami
Abendua	“LO QUE MUEVE EL MUNDO”	Kirmen Uribe

2.7. Ostegunetako Foroa

ARDURADUNA: Jose Manuel Susperregi

Batzordekideak: Antxón Mansoa, Ricardo Alava, Mari Carmen Ayastuy, Anttón Alonso eta Eduardo Blazquez.

Gauza jakina denez, Topalekuko aretoetan (Aieteko Parkean) egiten dugun foroa ostegunero izaten da, 10.30etik 12etara, urteko lehen, bigarren eta laugarren hiruhilekoen barruan.

Azalpen zehatzagoa egiteko, bi etapak bereizten ditugu, hau da, lehenengoa lehenengo bi hiruhilekoei dagokie eta bigarren laugarren hiruhilekoari.

22 saio egin dira guztira, 16 lehenengoan eta 6 bigarrenean.

Parte hartzeari dagokionez, Helduen Hitzako bazkideak betiere, 64 lagunek eman dute izena lehenengo aldian eta 44 lagunek bigarrenean.

Taula honetan ikusten da zenbat lagunek parte hartu duten.

2018		
Asistentzia-egunak	**Hiruhilekoa**	
	Bazkide kopurua	
	1.eta 2.	**4.**
Inongo alditan	20	13
1 eta 8 aldiz bitartean	26	
9 eta 14 aldiz bitartean	18	
1eta 3 aldiz bitartean		20
4 eta 6 aldiz bitartean		14

Eztabaidatu eta landu diren gaiak honako hauek izan dira:

- ✓ Zoriontasuna, zer da zoriontsu izatea eta gizakiak aurki dezakeen zoriontasun hori.
- ✓ Aurten martxoak 8ko jardunaldiak izan duen garrantzia eta egindako errebindikazio nagusiak. Beste ostegun batez ere egin zen egun horren balorazioa nazioartean izandako oihartzuna kontuan hartuta.
- ✓ Bi saio egin ziren Lagunkoia zer zen azaltzeko, haren helburuak eta xedeak eta horietatik ondorioztatzen diren Udal Zerbitzuak eta gizarte laguntzak; liburuxka bat ere banatu zen.
- ✓ Lan Ministroak 2018ko pentsioen igoera dela-eta idatzitako gutunari erantzun zitzaion, eta interesdunari itzuli. Kanpaina horren barruan pentsiodunen 2018ko lehenengo mobilizazioaren eta horien errebindikazioen berri eman zen.
- ✓ Presoaldi iraunkor berrikusgarriaren gaia landu zen, Granadako adin txikikoen epaitegiko titular den Emilio Calatayuden idatzi baten bitartez.
- ✓ Organoen donazioa eta horren garrantzia, borondatezkoa edo derrigorrezkoa, eta organoen salerosketarik baden edo ez.
- ✓ 2017. urteaz geroztik Donostian Urrezko danborra emateko indarrean dagoen araudi berria.
- ✓ Neguko/udako beheraldiak dendetan, merkataritza politika gisa, zer bultzatzen duten, nori egiten dion mesede eta kontsumismoa bultzatzen duten.
- ✓ Herritarren segurtasuna, Bilbon adin txikikoen parte hartzearekin gertatutako gertaeren ondorioz.
- ✓ Oinarrizko Errenta Unibertsalari buruz, Okendon emandako hitzaldiaren harira.
- ✓ Eskoletako hezkuntza Euskadin eta Finlandiako sistemarekiko dituen aldeak.
- ✓ Globalizazioaren fenomenoa, gizartean sortu dituen abantailak eta desabantailak.
- ✓ Etxebizitzei dagokionez, alokairuen lege berriari buruz hitz egin zen, udalek desjabetzeko dituzten aukerak eta etxebizitzek funtzio soziala bete behar duten edo ez.
- ✓ Immigrazioa Euskadin, bilakaera eta eraginak eta alderdi positiboak eta negatiboak.
- ✓ Iruñeko "la manadaren" epaia eta 3 epaile emakumezkoen gutuna.
- ✓ Pentsiodunen mugimenduaren bilakaera, lortutako emaitzak eta egiteko gelditzen dena.

- ✓ Elikadura ekologikoa eta onurak, Dolores Raigóni egindako elkarrizketa batetik abiatuta.
- ✓ Bakardadea eta haren ondorioz, nola aurre egin adinekoen taldearen barruan.
- ✓ Demokrazia, sistema politiko moderno gisa, gizartean bizitzeko moduan, hainbat balio goraipatuz, hala nola askatasuna, berdintasuna, tolerantzia, aniztasuna eta parte hartzea.
- ✓ Genero berdintasunaren alderdi positiboa, "bide eginez" esapideari buruzko gogoetarantz eta iristea espero den helburua, haren balioekin bat eginez.
- ✓ Iritzi artikulu batetik ateratako testu honetatik abiatuta gizadiari buruzko gai bat landu zen: “Gauza polita da dirua edukitzea eta harekin eros litezkeen gauzak, baina polita da halaber diruak ezin eros dituen gauzak edukitzea, hala nola OSASUNA, ZORIONA, BARNE BAKEA, BENETAKO ADISKIDETASUNA...”

2.8. Kultura irteerak

Urtarriletik ekainera, Marivi Osorok, zuzendaritza batzordearen arduradun eta bokal gisa, eta Ana Aierdik, kolaboratzaile gisa, osatu zuten batzordea. Urritik aurrera berritu egin zen batzordea, agintaldia bete ondoren. Batzorde berria honako hauek osatzen dute: Elena Arruti, Rosa Delgado, Koro Garmendia, Mertxe Larrañaga, María Soledad Majuelo, Ramón Leturiondo eta María Jesús Lería (arduraduna).

Irteeren egitaraua

Otsailak 22: Kultura irteera Bergara eta Mendarora



Debagaraiaren hiriburutzat hartu izan da Bergara historian zehar. Kostaldeko bidearen, gaztelar goi-ordokiaren eta Gipuzkoan eta Bizkaian barrena sartzen ziren ibilbideen arteko bidegurutzean egonik, asko hazi zen Bergara, eta aberastasun ekonomikoa ekarri zion. Merkataritza izan zen herriaren eragile ekonomiko nagusia; oparoaldi ekonomiko horrek eraikin ugariren eraikuntza eragin zuen, bai eraiki zibilak bai erlijiosoak.

Bergarako Errege Seminarioak hezkuntzaren eta ikerketa zientifikoaren alde egin zuen. Ikerketa praktikoak eta bilduma zientifikoek gorena jo zuten Elhuyar anaiek *wolframioa* aurkitu zutenean.

San Pedro Ariznoakoaren eliza monumentu nazional da, eta interes bereziko gunea Bergarara egindako bisitan.

Gaur egungo eraikuntza XVI. mendearen amaierakoa eta XVII. mendearen hasierakoa da. Aldare Nagusia platereskoa da, XVI. mendekoa, eta handitasuna du ezaugarri nabarmenena. Juan de Menak egindako Santo Kristo Agoniakoaren eskultura ederra nabarmentzen da.



Oxirondoko Andre Mariaren eliza ere monumentu nazionala da. Oinplano laukizuzena du, eta 1542 eta 1607 urteen bitartean eraiki zen lehenengo fasea eta 1648 eta 1672 urteen bitartean bigarrena. Barrualdean aldare nagusia nabarmentzen da, barrokoa, Miguel de Irazustak egina; iruditeria Salvador Carmonarena da.

Gogoratu genuen 1839ko abuztuaren 31n sinatu zela Bergaran lehenengo karlistaldiari amaiera eman zion bake hitzarmena; Rafael Maroto eta Baldomero Espartero jeneralek izenpetu zuten, eta elkar besarkatu ziren, horregatik esaten zaio "Bergarako Besarkada".

Mendaron amaitu genuen irteera kulturala. Txokolate ekoizpenaren jatorria Juan María Saint-Geronsen garaikoa da. Txokolategile lanbidea ikasi ondoren Bilbon, lantegi bat zabaldu zuen etxe horretan, eta era guztietako txokolateak eta bonboiak egiten dira oraindik ere, artisau erara. Horretarako kakao errota bat jarri zuen, animalien trakzioaren bitartez biratzen zuena; ondoren, Gipuzkoan jarritako lehenengo motor elektrikoa jarri zen haren ordez.

apirilak 19 eta 26: Eltziegoko eta Añanako Gatz Harana

Interes handia eragin zuenez irteera honek, bitan egin genuen, bi egun desberdinetan. Oraingo honetan Marqués de Riscal upeltegian hasi genuen irteera. Eltziegon du jatorria eta egoitza, eta han jarri zen abian, 1885ean, Arabako upeltegi zaharrena izanik Araban.



2006. urtean, Eltziegoko upeltegiak **Ardoaren Hiri** bihurtu ziren, eta bertan bat egiten dute jatorrizko upeltegiak, modernoenak, mahastiak, baina gehien nabarmentzen dena, zalantzarik gabe, Frank Gehryk egindako eraikina da, forma, argi eta kolorez betea: **arrosa,** ardoaren antzera; **urrea,** Riscalen botilen sarearen antzera, eta **zilarra,** botilaren kapsula bezala. Eta bisita amaitzeko, upeltegi batean egin litekeen gauzarik onena, dastaketa bat egitea, eta oraingo



honetan Rueda izendapeneko ardo zuri bikain batekin eta erreserbako beltz batekin egin genuen.

Añanako bidean, Tuestan gelditu ginen, Jasokundearen Andre Mariaren elizari bisita egiteko. Arte erromanikotik gotikorako trantsizio garaiko eliza ikusgarria da. Portada Arabako erronikoaren erakusgarri garbienetako bat da.

Barruan ganga ikus daiteke, txikia baina miresgarria, zutabeen gainean bermatzen diren ertzekin gotortua; bost aldeko eraikina osatzen dute, eta horietako bakoitzean leihate handiak zabaltzen dira.

Gatz Haranarekin amaitu genuen eguna Araban. 2015ean, ondarearen berreskupenari ematen zaion Nostra Europar saria eman zioten. 6500 urte baino gehiagoko historia duen eremu hau, lehengoratze prozesuan dago. Lurruntze terrazez osatutako arkitektura ikusgarrien gainean dago eraiki, harriz, egurrez eta buztinez, eta egurrezko ubideetan barrena eramaten da ura, sodioarekin (240 gatz gramo litroko), grabitatearen eraginez iturburutik putzuetara eta biltegietara. Aipagarria da, halaber, gatz biodibertsitatea eta nola transmititu diren ekoizpen teknika tradizionalak mendez mende.

Ikasturte amaierako bidaia Kroaziara - maiatzaren 26tik ekainaren 2ra

1. eguna – **Donostia / Dubrovnik** : Maiatzaren 26an, larunbata, irten ginen, goizeko bostetan, Bilboko aireportura; handik, Munichetik igarota, Dubrovnikera iritsi ginen, check in egin, afaldu eta atseden hartzeko, bidaia luzearen ondoren.



2. eguna **– Dubrovnik**: Dalmazia eskualdeko kostaldeko hiria da, "Adriatikoko Perla" deitua. 1940an Unescok munduko ondare zela adierazi zuen. 1940 metro harresi gotikok eta errenazentistak inguratzen dute hiria, eta handik ikusi ahal izan genuen hiri guztia eta egiaztatu genuen gerrak, 1991 eta 1995 urteen bitartean desegin zuen guztia. Frantziskotarren Monasteriora egin genuen bisita, eta hantxe dago munduko botika zaharrena.




3. eguna – **Montenegro**: herrialde txiki bat da, kontraste handikoa, bai paisaiari dagokionez bai kulturari dagokionez. Muga igaro eta Kotorreko badia ikusi genuen, mendiz inguratutako badiek (fiordoak) osatzen dute paisaia ederra. Njegusin egin genuen geldialdia, bertako urdaiazpikoa eta gazta dastatzeko, eta 900 metroko garaieratik ikusi genituen fiordo izugarriak.

Kotor herriari egin genion bisita. Unescok ondare kultural gisa babestu zuen, eta handik, itsasontziz, Arrokaren Andre Mariaren Santutegira iritsi ginen. Uharte artifizial batean dago kokatua, eta elezaharrak dioenez, arroka baten gainean Ama Birjinaren irudia aurkitutako marinelek egin zuten.

4. eguna – **Mostar:** Bosnia eta Herzegovinako gerraren eszenatoki bikaina. Bertako kale estuetatik barrena ibili ginen, hirian batera bizi diren kulturen eraikin eta sinboloetan barrena. Eta, nola ez, Zubi zaharrean (Stari Most) ere egon ginen; 1993an hondatu zen eta Unescok berreraiki zuen. Turkiar etxe bat eta meskita bisitatzeko aukera ere izan genuen.



5. eguna – **Split:** bertako alderdi zaharra ere Unescoren ondare unibertsala da. Dioklezianoren Jauregia (III. mendekoa eta Erdi Aroan berritua), San Duje katedrala (hiriaren zaindaria) eta Jupiterren tenplua ezagutu genituen.
Jatetxerako bidean, oso ibilbide ederra egin genuen Nererva ibaiatik, eta xarmaz beteriko jatetxe batera iritsi ginen. Bertako otordu tipikoa eman ziguten: kazola handi bat, hainbat motatako haragiekin eta patatekin (dirudienez txingar gainean egina, kazolan bertan).
Adriana izan genuen gidari.



6. eguna – **Trogir :** kontinentetik oso hurbil dagoen uharte batean dago hiria. Estilo gotiko-erromanikokoa izanik, greziar kolonia batek hartu zuen bizilekua bertan, eta hura da hiriaren jatorria. Mendeen joanean hiria handitzen eta aldatzen joan da, baina beti gorde du oinplano helenistikoa. Hori dela eta, Unescok Gizadiaren Munduko Ondare izendapena eman zion Erdi Aroko Trogir hiriari.



Arratsaldean, geldialdi bat egin genuen **Sibenik** ezagutzeko, Dalmaziaren erdialdean dagoena.1991ko irailaren 16an, gogortasun handiz eraso egin zuen jugoslaviar osteak; Sibenikeko antzokia, 1870ean eraikia, Kroaziako handienetako eta ederrenetako bat, erabat hondaturik gelditu zen granada batek jota. Berritu egin zen erabat, eta 2001. urtean izan zen, azkenik, inaugurazio ofizial berria.

7. eguna – Goiza libre izan genuen **Spliten** barrena ibiltzeko, gune historikoan, bertako dendak ezagutzeko edo eguzkiaz gozatu eta Adriatikoan bainu bat hartzeko. Splitetik **Cavtatera** abiatu ginen, Kroaziako azken gaua igarotzeko han. Bertatik hurbildu ginen aireportura (ez dago autopistarik, eta denbora asko behar da kilometro gutxi batzuk egiteko).



8. eguna –**Cavtat**en, berriro ere goiza libre, Adriatikoan atseden hartzeko edo herri txikian barrena ibili eta hura ezagutzeko. Arratsaldean, itzulerako bidean, Dubrovnik, Munich, Bilbo, Donostia ibilbidea egin genuen, eta 22:30ean iritsi ginen azkenik Donostiako autobus geltokira.

2018/19 ikasturteko 1. hiruhilekoa

Urriak 18 - **<u>OTEIZA MUSEOA ETA IRUÑEA</u>**

Goizeko 10etan hasita, eta bi taldetan, egin genuen Oteiza Museoaren bisita (Alzuzan). Gidaren azalpen zehatzei esker, hobeto ulertu ahal izan genuen artista



handiaren obra. Alzuzako elizaren kanpoaldean, Jorge Oteizaren eta haren emazte Itziar Carreñoren hilobietara egin genuen bisita.

Handik Iruñera joan ginen, eta han, bertako gidari esker, hirian barrenako ibilbidea egin genuen: Gazteluko Plazan hasi ginen, Estafeta kale ospetsutik jarraitu genuen eta Katedralera iritsi ginen, bertako fatxada ikusteko, eta ondoren, San Jose plazatik

barrena, Baluarte jauregira iritsi ginen. Zumalakarregiren Atarian (Frantziako Ataria izenez ere ezaguna) jarraitu zuen Iruñeko historiari buruzko azalpenak. Nafarroako Artxibategira hurbildu ginen, eta barruan, XIV. mendetik XIX. mendera Iruñeko hiri egitura nolakoa zen erakusten duen maketa ikusi ahal izan genuen. Handik Sarasateren pasealekuraino jarraitu genuen, eta han, Diputazioaren Jauregia eta Foruen Estatua erakutsi zizkiguten.

Café con Sal jatetxean bazkaldu genuen.

Ondoren, goiz luze haren ondoren indarberrituta, Katedralera hurbildu ginen, eta bertako gidak Katedralaren historia eta xehetasun arkitektonikoak erakutsi zizkigun; azaldu zigun iparraldeko dorrean dagoen kanpai handiena ehunka metrora entzun litekeela. Barruan estilo gotiko izugarriaz gozatu genuen, Karlos III.a Noblearen eta Leonor Trastamarakoaren mausolea ikusi genituen, eta baita klaustroa eta hainbat areto ere.

Katedralaren bisita amaitu ondoren, Udaletxera itzuli ginen, taldeko argazki bat egiteko, eta azkenik, arratsaldeko 18,30ean itzuli ginen Donostiara.

55 lagun elkartu ginen. Oso giro polita sortu zen bidaiari guztien artean. Eguraldia ezin hobea izan genuen, ibiltzeko tenperatura egokiarekin.

Azaroak 22: ATZOKO, GAURKO ETA ETORKIZUNEKO BILBO



Donostiatik Bilbora irten ginen, eta harako bidean, Ramón Leturiondok eguneko programari eta ikusiko genituen gauzei buruzko azalpena eman zigun.

Arte Ederretako museora iritsi ginen, eta hiru taldetan banatuta, ABC. Bilboko Museoaren alfabetoa erakusketa ikusi genuen, Museoko gidarekin.

Deustuko zubia gurutzatu, eta Artxandako funikularrera hurbildu ginen, paseeran. Bidean, Ramónek inguru hartako eraikinei eta arkitekturari buruzko eskola bat eman zigun.

Funikularrean Artxandaraino igo ginen, eta handik, Txorierriko korridorea eta Bilbo ikusi genituen, eta Ramónen azalpenak entzuten jarraitu genuen.

Txakoli jatetxean egin genuen bazkaria.

Bazkaldu eta gero, Uribitarteko kairaino joan ginen, eta handik, itsasontzian eta audiogidekin, ikuspegi guztiz ezohikotik eta askorentzat guztiz ezezagunetik, itsasadarraren bazterrak ezagutu genituen. Areetako itsas kaian lehorreratu ginen.

5 lagun joan ginen. Giroa atsegina izan zen bidaiarien artean. Tenperatura onari eta egun eguzkitsuari esker, irteera oso ondo irten zen.

2.9. Musika eta Kantu tailerra

ARDURADUNA: Itziar Olaizola

2017/2018 ikasturtean ilusioz jarraitu dugu aurrera Sara Varas profesional handiak zuzendutako Musika Tailerrarekin.

Astelehenero elkartzen jarraitu dugu, bi orduz, Musika Eskolan (Atotxako plazan). Lehenengo orduan Musikaren Historiaren ikaskuntzari ekin diogu berriro ere, eta bigarren orduan Gabonetako eta ikasturte amaierako kontzerturako abestiak entseatzen hasi gara, dagoeneko ohiko ekitaldi bihurtu baitira gure Elkartean. Hori dela eta, urtetik urtera gero eta parte hartzaile gehiago ditugu, eta aberastu egin da, hortaz, gure Abesbatza.

Bi kontzertu horietan hainbat herrialdetako abestiak kantatu genituen. Gabonetakoan, esaterako, bilantzikoren bat erantsi genuen; beti amaitzen dugu *Hator, Hator* (Jesús Guridi) Gabon kantarekin, eta ikusleek ere bat egiten dute gurekin.

Aurten, ikasturte bukaeran hainbat estilotako abestiak abesten jarraitu dugu. Horietako batzuk perkusioko tresnekin laguntzera ere ausartu ginen. Aurreko maiatzean honako hauek abestu genituen: ***Beltzarana*** (Zortziko anonimoa), ***Duerme negrito*** (Atahualpa Yupanqui), ***Hoy comamos y bebamos*** (Juan de la Encina), ***Nere herriko neskatxa maite*** (Benito Lertxundi), ***Cubanita*** (Eva Ugalde).

Eskerrak ematen dizkiogu Elkarteari ikasturtean zehar jarduera honekin gozatzeko eskaintzen digun aukeragatik eta ikasitakoa praktikan jarri ahal izateagatik.



2.10. Antzerki tailerra

Arduraduna: Joaquin Mendia

2018. urtean, Antzerki tailerra 10 emakumek eta 2 gizonek osatu dute. Aurten berriro ere, ohikoa denez, emakumeak gizonak baino aktiboagoak izan dira. Itxura denez, interpretaziorako gaitasunak gehiago egokitzen dira emakumeen artean gizonezkoen artean baino. Edo, hobe esango nuke, gizonezkoek lotsa handiagoa dute. Gizonezkoen kopurua handitzea lortu behar da, eta gizonezkoak bultzatu beharko dira ilusio eta indar

handiagoz parte har dezaten jarduera honetan.



Aurten antzeztu dugun lana “La segunda oportunidad” izenburukoa izan da. Lan hori Woody Allenek idatzitako komedia baten egokitzapen librea da, Ingar Bergmanen “El Séptimo Sello" izenburuko filmean inspiratua eta Max Von Sydom antzezle bikainak antzeztua. Woody Allenek beti miretsi zuen suediar zinemagilea eta gidoi ugari idatzi zituen, suediar zuzendariak hain egoki idatzi ohi zituen "bikote gatazkei" buruzko istorioak gogoratzen zituztenak.



Marian Losada izan da gure komediaren zuzendari eta moldatzailea. Urteak darama bere lana gogo handiz, pazientziaz eta profesionaltasun handiz egiten. Antzezleak beti sentitu gara babestuta, eta harmonia eta adiskidetasun handiko taldea osatzea lortu dugu.



Asteazkenero egin ditugu entseguak, 5etatik 7etara, Topalekun.

Antzerki taldeak Lugaritzeko Kultur Etxean egin zuen lehenengo antzezpena Helduen Hitzako bazkideen aurrean, 2017-18 Ikasturtearen amaiera ospatzeko.

2018ko azaroan antzezpen berri bat egin zen, Lugaritzeko Kultur Etxean hori ere. Baina orduko hartan ez zen bazkideei mugatua izan, irekia baizik, eta arrakasta handia eduki zuen ikusleei dagokionez. Lehenengo saioan zein hurrengoan txalo ugari jaso ziren, zintzoak, eta gutxienez hiru aldiz atera behar izan zuten antzezleek eszenatokira aitorpen hura eskertzeko.

Era berean, erantsi beharra dago 2019. urterako antzezlan berri bat prestatuko dela, "Juana la Loca" izenburua duena.

Amaitzeko, berriro ere azpimarratu nahi dugu gure antzerki talde batean, gurearen antzekoan, parte hartzearen ontasunak: gorputz adierazpena, autoestimua, desinhibizioa, sorkuntza lana handitzea, memoria lantzea….

Hori guztia kontuan hartuta, animatu eta eman izena. Zatozte !!!!!



2.11. “HELDUEN HITZA -BERRIAK” aldizkaria

Aldizkaria egitearen batzorde arduraduna honako hauek osatu dute:

Arduraduna: Andrés Acosta, eta batzordea María Sanchez, Juan Ignacio Aizpurua eta José Luis Gonzalezek osatzen dute.

2018. urtean hiru aldizkari argitaratu ziren, urtarrilean, ekainean eta uztailean, 22., 23. eta 24. zenbakiak, hain zuzen ere. Aipamen berezia 23. zenbakia, bai azalak bai edukiek Elkartearen XV. urteurrena ospatzeko egindako ekitaldien berri ematen baitzuen.

Formatuari dagokionez, eutsi egin zaio 16 orrialdeko formatuari.



Lan hori guztia hainbaten laguntzari esker egin ahal izan da:

- Bazkideak, beren ekarpenekin: edukiak eta argazkiak.
- Hainbat batzorde: informazioa eta argazkiak.
- Helduen Hitzako lehendakaritza eta Zuzendaritza Batzordea editorialekin eta beste artikulu batzuekin.
- Elkartearen azpiegitura guztia.

Eta, nola ez, aldizkaria osatzen duen taldearen lanari esker.

Gure eskerrik beroena aldizkaria garaiz kalera atera dadin era batera edo bestera laguntzen duten guztiei.

Aldizkaria asmo garbi batekin sortu zen, hain zuzen ere, bazkideen arteko komunikazio eta informaziorako bidea izatea, eta balantzea oso positiboa izaten ari da, egunetik egunera handitzen ari baita aldizkariarenganako interesa.

Aldizkariaren ale bat kaleratzen denetik bestea argitaratzen den bitartean egindako jardueren berri ematen da aldizkarian, eta, horrela, denon artean partekatzen da Elkartearen iritzia, adiskidetasun harremanak eta harmoniazkoak sortuz eta estutuz

bazkide guztien artean. Aldizkaria postaz bidaltzen zaie bazkide guztiei, eta baita erakunde publikoei eta beren zeregina dela-eta Elkartearekin zerikusia duten beste Entitate batzuei.

2.12. **“HELDUEN HITZA” WEBGUNEA**

2018. urtean, webguneak bere indar guztiaz jardun du, eta sortu zutenek zituzten itxaropenak bete ditu, ondo bete ere, bai diseinuari bai funtzionalitateari dagokionez. Azpimarratu beharra dago bazkideen 2/3k erabili zutela, gutxi gorabehera, webgunea ikasturtearen hasieran, eskainitako jardueretan izena emateko. Aurrerapen handia izan da hori izen emateen ondorioz sortutako informazioaren tratamendu administratiboari dagokionez.



Horrez gainera, lotura gisa erabili da Elkartearen XV. urteurrena ospatzeko egindako bideoa ikusteko. Arrakasta handia izan du, halaber, bideo horrek, bisitaldi kopurua kontuan hartuta.

Azaroan webguneari buruzko galdeketa bat egin zen; webgunearen diseinuari, erabilera erraztasunari eta funtzionaltasunari buruz galdetu zitzaien bertan bazkideei.

Galdeketak 8 galdera zituen, data horretan bazkide zirenen artetik (510) 167 bazkidek beteak. Emaitzak ezin hobeak izan dira, balorazioak oso onak izan dira, eta horietan erabiltzeko erraztasuna, informazioaren eguneratzea eta bazkideari eskaintzen dion funtzionaltasuna nabarmendu dira, Elkarteak bultzatzen dituen jarduera guztiei buruzko informazioa oso azkar lor baitaiteke.


Aldizkariaren 25. alean, 2019ko urtarrilean argitaratua, modu grafikoan ikus litezke lortutako emaitzak.

Honako hauek osatzen dute Webgunearen Batzordea:

Arduraduna: Maria Sanchez eta kolaboratzaileak: Andrés Acosta eta Juan Ignacio Aizpurua eta batzordeen arduradunak**: Ramón Leturiondo, Juan Mari Pérez, Eva Esnal, Marivi Osoro, Carmen García Viscarret, Antxon Alonso, Luis Felipe Hernández eta Marije Lizarazu,** Webguneko informazioa egunera edukitzearen arduradunak. Horiei guztiei, gure eskerrik beroenak, gure Elkartearentzat hain baliozkoa den komunikazio bide hau posible egiten dutelako.

2.13. **KONTAKIZUN LABURREN HELDUEN HITZA LITERATURA LEHIAKETA 2018**

Arduraduna: Virginia Vera



Elkartearen "Helduen Hitza Berriak" Aldizkariaren 22. zenbakian argitaratu ziren Helduen Hitza Berriak Kontakizun Laburren VI. Lehiaketari zegokion Deialdia eta Oinarriak, bai euskarazko bai gaztelaniazko modalitateetan.

Bi modalitateetan, 1. saria diploma bat zen, Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarteko Maria Jose Cuelik diseinatua, irabazlearen izenarekin, eta 150 €ko saria.

Akzesitari dagokionez, diploma diseinu bera ematen zen, akzesitaren irabazlearen izenarekin, eta 80 €ko saria.

10 lan aurkeztu ziren, 9 gaztelaniaz eta 1 euskaraz, Lehiaketaren oinarriak beteaz.

Lehiaketa saridunik gabe gelditu zen euskarazko bertsioan, eta gaztelaniazko bertsioan emandako sariak honako hauentzat izan ziren:

1. saria: " **EL RELATO, VERIDICO, DEL CONSPICUO** " Manuel Castillorena
1. akzesita: "**ELLA**" María Sanchezena
Gure zorionik zintzoena irabazleei!!!

Sariak Lugaritzeko Kultur Etxeko ikasturte amaierako festan eman ziren.

Ekitaldi horretan, María Sanchezek akzesita irabazi zuen bere lana irakurri zuen; irabazleak ezin izan zuen irakurri ez baitzegoen ekitaldian. Sariak emateko ekitaldiaren biharamunean argitaratu ziren lan irabazleak webgunean, VI. Literatura Lehiaketaren oinarrietan adierazten den moduan.

Aukera hau baliatzen dugu bazkideei animatzeko ahalegina egin dezaten eta Lehiaketak bizirik manten dezaten, garrantzizko aktiboa da-eta Elkartearentzat, oso aintzat hartua baita bai elkarte barruan bai kanpoan, tokiko komunikabideren batek erakutsitako interesaren arabera.

"KONTAKIZUNEN ANTOLOGIA" LIBURUAREN AURKEZPENA

Martxoaren 14an aurkeztu zen liburua Okendoko Kultur Etxean, ekitaldi bakun eta atsegin batean. Bazkide ugarik parte hartu zuten.

Elkartearen lehendakari Juan Ignacio Aizpúruak ekitaldiaren sarrera labur bat egin zuen, azken bost urteetako lehiaketetan hautatutako kontakizunak biltzen dituen liburu hau aurkezteak Helduen Hitza elkartearentzat zenbateko garrantzia duen azalduz.

Haren ondoren, Victoria Verak hartu zuen hitza, eta hark amaitu zuenean, liburuaren ale bana eman zitzaien irabazleei, beren lanak baitzeuden bildutako liburuan.

Liburua banatu ondoren, argazki eder batean elkartu ziren irabazle guztiak, Elkartearen Lehendakariarekin eta edizioaren arduradunarekin batera.

Azpimarratu beharra dago liburu argitaratu ahal izateko Victoria Verak egin duen lan handia.

Elkarteak sustatu eta finantzatu du liburuaren argitalpena, eta estimatzekoa izan da Maria Jose Cueli eta María Sanchezen lankidetza, oso diseinu berezia lortuz bai azalean, bai atzeko azalean eta barruko ilustrazioetan, zeinak lotura zuten kontakizunen edukiarekin.



2.14. Mugikorrarekin egindako argazkien tailerra

Arduraduna: Juan Ignacio Aizpurua

Urriaren 30ean eta azaroaren 6an egin zen lehenengo tailerra, eta 11 lagunek parte hartu zuten. 4 ordukoa izan zen tailerra eta Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarteko Mari Jose Cuelik eman zuen. Lehenengo saioan, 2 ordukoa, argazkiak egiteko kontuan hartu beharreko hainbat ezagutza teoriko helarazi ziren, konposizioari, argiei, tonuei eta abarrei buruzkoak. Bigarren saioan praktikak egin ziren mugikorrarekin eta ***snapseed*** aplikazioarekin, eta horrekin egin ziren, hain zuzen, ukituak, hobekuntzak eta bidalketak. Oso esperientzia polita izan zen, eta balorazioa oso positiboa izan zen, bai hizlariari dagokionez bai programaren edukiari dagokionez. Jende gehiagok adierazi zuenez interesa zuela, 2019. urtearen hasieran 2. tailerra egitea erabaki zen.



3- EGOERA EKONOMIKOA

2018 EKITALDIA		AURREKONTUA	EGINA	% aur/gain
		ZENBATEKOAK		
DIRU SARRERAK				
BAZKIDEEN KUOTAK		17860	19660	
MATRIKULAK		23620	21617	
DIRU LAGUNTZAK		2000	4810	
DIRU SARRERAK GUZTIRA		**43480**	**46087**	% 106
GASTUAK				
ADMINISTRAZIO GASTUAK				
	KONTULARITZA AHOLKULARITZA	850	1090	
	POSTA	1050	712	
	FOTOKOPIAK	1270	888	
	INFORMATIKA	650	466	
	BULEGOKO MAT.	500	744	
	URTEKO MEMORIA	850	756	
	ASKOTARIKO KONTSUMOAK	350	318	
	TELEFONOA	850	714	
	ITZULPENAK	700	1197	
GUZTIRA		**7070**	**6885**	% 97
BANKETXEKO GASTUAK		**450**	**654**	% 79
GASTU SOZIALAK				
	IRTEERA KULTURALAK	2500	2755	
	LOKALEN ALOKAIRUA	1050	1050	
	ARRETAK	120	234	
	URTE AMAIERA	230	443	
	EHU Unibertsitate Matrikulak	150	270	
	XV Urteurrena-Luntxa	1875	2262	
	ASKOTARIKOAK	600	208	
GUZTIRA		**6525**	**7222**	% 111
HIZLARIAK ETA ALOKAIRUAK				
	HIZLARIAK ETA KOLABORATZAILEAK	22454	23538	
	LOKALEN ALOKAIRUA PRESTAKUNTZA	1800	1500	
GUZTIRA		**24254**	**25038**	% 103
KOMUNIKAZIO SOZIALA				
	ALDIZKARIA	4056	3899	
	WEBGUNEA	1852	2616	
	LITERATURA LEHIAKETA	835	460	
	XV. URTEURRENEKO BIDEOA	3390	2940	
GUZTIRA		**10133**	**9915**	% 98
GASTUAK GUZTIRA		**48432**	**49415**	% 102
RESULTADO		**-4952**	**-3328**	% 67

HELDUEN HITZAk -3.327,60 €-ko Emaitza erreala lortu du, aurreikusita zegoen -4.952,00 €-koaren aldean, baina horrek 1.624,40 €-ko defizit txikiagoa eragiten du.
Emaitza hori lortu da, alde batetik, aurreikusitako diru sarrerak 2.607,63 €-an hobetu direlako, eta, beste aldetik, aurreikusitakoa baino 983,23 € gehiago gastatu delako.

DIRU SARREREI dagokionez:

BAZKIDEEN KUOTA kontzeptuan, 19.660,20 € bildu dira, hau da, aurreikusitakoa baino 1.800,20 € gehiago, aurreikusi baino bazkide berri gehiago izan baitira; 500 bazkidetik gora gara dagoeneko.

MATRIKULAK kontzeptuan, 21.617,43 € lortu dira, aurreikusitakoa baino 2.002,57 € gutxiago, hitzaldien kostua 10,00 € gutxitu baita pertsonako. Uste baino diru laguntza gehiago jaso direlako egin da aldaketa hori.

DIRU LAGUNTZAK kontzeptuan, 4.810,00 € sartu dira, aurreikusitako 2.000,00 €-en aldean. 2.500 € GIZPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI dagozkio, eta 2.310,00 € DONOSTIAKO UDALAri.
Hori guztia kontuan hartuta, diru sarrerak 46.087,63 eurokoak izan dira.

GASTUAK atalari dagokionez:

ADMINISTRAZIO GASTUAK 6.885,50 €-koak izan dira, aurreikusitako 7.070,00 €-en aldean, eta, oro har, aurrekontuaren azpitik egon dira gastu guztiak.
Aipatu beharra dago, Itzulpenen gastuari dagokionez (gaztelania-euskara), 700,00 € aurreikusi baziren ere, benetako gastua 1.197,06 €-koa izan dela. Desbiderapen horren arrazoia da Helduen Hitzan argitaratutako dokumentu guztiak bi hizkuntzetan agertzen direla. Etorkizuneko ekitaldietan kontzeptu horri dagokion gastuak gora egingo du.

BANKETXE GASTUAK aurreikusitako mailetan gelditu dira, banketxeetako igorpenen kobrantzek sortutako gastuak sartuta funtsean.

GASTU SOZIALAK 7.221,76 €-ra iritsi dira, aurreikusita 6.525,00 € bazeuden ere, 696,76 €-ko gastu gehiagoko desbiderapenarekin, ikasturte amaierako eta urte amaierako ekitaldien ondorioz aurreikusitakoa gainditu baitugu.

HITZALARIAK ETA PRESTAKUNTZARAKO ALOKAIRUAK GASTUAK 25.038,58 € izan dira, aurreikusitakoa baino 784,58 € gehiago, aurrekontua % 3 igo da hortaz.

KOMUNIKAZIO SOZIALA GASTUAK (aldizkaria - webgunea - literatura lehiaketa) 9.915,03 €-koak izan dira, beraz, aurrekontuan baino 217,97 € gutxiago, XV. URTEURRENA bideoaren edizioa barne.
Horrek guztiak 49.413,23 euroko gastua eragin du.

Laburbilduz, 2.018 ekitaldia aurreikusitakoaren arabera osatu dugu; aurreikusi baino Diru Laguntza handiagoak izan ditugu, eta horri esker murriztu egin ditugu Hitzaldien matrikulen kostua eta Ekitaldirako aurreikusitako defizita.

4. BESTE JARDUERA BATZUK

4.1. XV. Urteurrena - martxoak 21

Ekitaldi honetan 15 urte beteko dira elkartea sortu zenetik, hain zuzen ere martxoaren 21ean. Egun horretan izan zen, hain zuzen ere, Ohiko Batzar Orokorra, programa honekin:

1. Lehendakariaren hitzak: Eskerrak bazkide guztiei, sortzaileei, batzordeetako kideei eta zuzendaritza batzordeetakoei, eta baita beren ideiak, lanak eta bereziki beren denbora eskaini dituzten kolaboratzaile guztiei ere.
2. Elkartearen lehenengo hamabost urteetan egindako hainbat ekimen eta jarduera bildu dituen diaporama/bideoa ikustea. Bideoa 850 aldiz baino gehiagoz ikusi da urte honetan zehar; laguntza handikoa izan da gure elkartea hobeto ezagutzeko.
3. Donostiako Udalaren Gizarte Ekintzako zinegotzi Aitziber San Románen hitzak, gure jardueraren balorazioa eta eskerrak Helduen Hitzaren aldetik.





4. Helduen Hitzako abesbatzaren – Musika eta Kantu tailerraren emanaldia

Oso ekitaldi atsegina izan zen, bihotzez egina, eta bertan, bazkideei omenaldia egiteaz gainera, modu berezian eskertu zitzaien sortzaileei. Amaiera emateko, luntxa izan genuen atarian, urte horietan izandako esperientziei eta bizipenei buruz hitz egiteko. Eskerrak denei!

4.2. 2017-18 ikasturtearen amaiera eta 2018. urtearen amaiera

Helduen Hitzaren funtzionamendua eta antolamendua kontuan hartuta, hau da urritik hurrengo urteko maiatzera, bi amaiera egoten dira: maiatza bukaerako *ikasturte amaiera* eta abendu amaierako urte bukaera, *itxiera administratiboa.*

2017-18 ikasturte amaierari dagokionez, ekitaldi hauek egin ziren:

- 2018ko maiatzak 25: Lugaritzeko Kultur Etxean, ordena honetan:

• Helduen Hitza Antzerki Tailerrak lan hau antzeztu zuen: "**LA SEGUNDA OPORTUNIDAD**", Marian Losada taldearen zuzendariaren zuzendaritza eta egokitzapenarekin. Ekitaldi Aretoa lana antzeztu baino lehen bete zen. Txalo bero bat zuzendariari eta taldeko kideei.

- *Helduen Hitza Kontakizun Laburren VI. Lehiaketaren* sari ematea: gaztelaniazko lehenengo saria: "***EL RELATO, VERIDICO, DEL CONSPICUO"*** **Manolo Castillo** bazkidearena eta gaztelaniazko akzesita: ***"ELLA"*** **Maria Sanchez** bazkidearena. Euskarazkoa saririk gabe gelditu zen.

- Helduen Hitzako Abesbatzaren emanaldia (Musika eta Kantu tailerra). Sara Varas zuzendariaren zuzendaritzapean hainbat abesti eskaini zizkiguten. Txalo bero bat zuzendariari eta taldeko kideei, ondo merezita. Zorionak denei.

  Ikasturte amaiera izugarria izan zen, asko gozatu genuen eta denbora eduki genuen iritziak trukatzeko eta elkar ondo ezagutzeko. Oso inpresio ona eduki genuen eta berriro egitea da erabaki inplizitua.

- Jardunaldia amaitzeko, ohiko anaitasun bazkaria egin zen, bazkideentzat, Ondarretako Tenis Klubeko jatetxean.

2018. urtearen amaierari dagokionez, honako ekitaldi hauek egin ziren:

Enrique Cercadillok bi poema errezitatu zizkigun eta berak sortutako lan bat: ***AUNQUE ME FALLE LA VOZ***. Poeten sentimenduak eta haien bizipen pertsonalak helaraztea lortu zuen. Oso ondo, Enrique!!! Animo, poeta berri maitea.

- ***Helduen Hitza Abesbatzaren*** **kontzertua,** Sara Varasen zuzendaritzapean, Gurutzeaga Parrokiko Ekitaldi Aretoan (Aiete). Aurreko aldietan bezala, txalo ugari jaso zituzten.

Abesbatzaren emanaldia amaitu ondoren, aurrez ospatu genuen Santo Tomas eguna, txistorrarekin, patata tortilarekin, edariekin... giro ezin hobean. Eguberri eta urte berri ona opa ziguten.

Laburpen gisa, oso urte positiboa izan da jai giroko ekitaldiei eta atsegin hartzeko aukerei dagokienez.

4.3. 2018-19 Ikasturtearen Hasiera Ekitaldia

LUGARITZeko K.En, 2018ko urriaren 9an, bazkide ugarirekin, 2018-19 ikasturtearen hasiera ekitaldia egin zen.

Ikasturte honen inaugurazioan –eta dagoeneko klasiko bat da– Juanjo Alvarez hizlariak jardun zuen. Oraingo honetan hautatutako gaia honakoa izan zen: Justizia eta Europar Batasuna: **Luxenburgo eta Estrasburgo artean.**

5. UDALAREKIKO HARREMANAK

5.1. Donostiako Udalaren Sektore Kontseilua: Gizarte Ekintza

*"**Udal Kontseilu Sektorialak** partaidetza organoak dira, ezaugarri, helburu eta funtzio bereziekin". "Beste hainbat neurriren artean, Kontseiluen barne kudeaketa organoan herritarren erakundeen ordezkariak egongo dira, eta partaidetza hori eragile horiek ahalduntzeko aukeratzat hartuko da". "... udal politikaren eremu zehatz bateko gaiei buruzko aholkularitza, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamenak egiteko eremu gisa osatuta daude".* (2015eko apirilaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

Esan beharra dago Gizarte Ekintzako Sektore Kontseiluan dugun parte hartzea oso emankorra izaten ari dela. Bi urteren ondoren, Gizarte Ekintzako Kontseiluaren 4 saio egin dira eta honako hauek parte hartu dute horietan: *Juan Ignacio Aizpurua* eta *Luis Felipe Hernandez.*

Adinekoek erakunde publikoetan –zehazki gure hiriko Udalean– duten partaidetzan laguntzeko ahaleginean, Helduen Hitza elkartea, erakunde publikoen bitartez, Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektorialean parte hartzen ari da, beste hainbat jarduerarekin batera.

Sei hilabetez behin izaten dira bilerak, eta urtean zehar Gizarte Zerbitzuen bitartez egiten diren gastuen txosten bat aurkezten da, eta baita hurrengo urterako osatzen diren aurrekontuak ere.

Pentsatzen dugu gure ekarpena informazioa jasotzeko baino ez dela, eta Zuzendaritza Batzordeak baloratu beharko du Kontseilu horretan dugun parte hartzea, Elkartean sortzen diren lan premien arabera.

6. HARREMANAK DIPUTAZIOAREKIN

6.1. ADINBERRI Estrategia

CONGRESO ADINBERRI
RETOS Y OPORTUNIDADES DEL ENVEJECIMIENTO SALUDABLE EN GIPUZKOA

Azaroaren 22an eta 23an izan zen Adinberri batzarra, Aldundiak sustatua, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bitartez. Bertan honako hau nabarmendu zen: 2017. urtean 55 urteko pertsonek eta hortik gorakoek biztanleriaren % 35 osatu zuten eta 2031n, berriz, biztanleriaren % 48 izango dira. Ordurako, biztanleria horren % 27,1 izango dira 65 urtetik gorakoak eta % 5, berriz, 85 urtetik gorakoak. Aurreikusten bada ere gehienak modu autonomoan biziko direla, mendekotasunen bat duten biztanleak gaur egungo 29.000 izatetik 39.000 izatera igaroko dira.

Errealitate horretan "oso erronka konplexuari aurre egin behar zaio", eta horri erantzuteko, "pertsonetan zentratutako arreta eredu berriak" bultzatu behar dira, laguntza eta osasun sistema hobetuz.

Adinberriren bitartez hainbat ekimen egingo dira, adinekoen eta gizarteko gainerako herritarren arteko ezagutza eta esperientzia trukea bultzatzeko, eta boluntariotza bultzatuko da, eta baita talde horren parte hartzea ere «gogoetarako eta erabakiak hartzeko eremuetan».

Helduen Hitzak Biltzar horretan parte hartu zuen eta harremanak egin zituen proiektuko arduradunekin, zer ekarpen egingo dizkigun eta zer alorretan jardun dezakegun elkarlanean; alderdi horiek hurrengo ekitaldian aztertuko dira.

6.2. Donostialdeako Adinekoen Kontseilua

*"**Adinekoen Kontseiluak** kontsultarako organoak dira, ezaugarri, helburu eta funtzio espezifikoekin".*

Honako hauek parte hartu zuten horietan: *Juan Ignacio Aizpurua* eta *Luis Felipe Hernandez.*

Helduen Hitza, erakunde publikoen bitartez, zehazki Foru Aldundiaren bitartez, Adinekoen parte hartzean laguntzeko asmoz, Donostialdeko Adinekoen Kontseiluan parte hartzen ari da, beste hainbat jarduerekin batera.

Kontseilu horrek 2018an berriro ere ekin dio bere ibilbideari, eta lehenengo ekimenetako bat izan da Gipuzkoako Adinekoen Etengabeko Kontseiluan Donostialdearen ordezkaria izendatzea.

Pentsatzen dugu gure ekarpena informazioa jasotzeko baino ez dela, eta Zuzendaritza Batzordeak baloratu beharko du Kontseilu horretan dugun parte hartzea, Elkartean sortzen diren lan premien arabera.

7. LANKIDETZA ERAKUNDE ETA ORGANIZAZIOEKIN

7.1. Gipuzkoako adinekoen beste elkarte batzuekin harremana

2018ko ekitaldian Gipuzkoako adinekoen eskola elkarteen arteko bilerei ekin zaie berriro ere. Lehenengo bilera urtarrilean izan zen, Zarautzen, eta han 6 elkarte elkartu ginen, egindako prestakuntza programei eta erakunde arazoei buruzko informazioa trukatzeko. Helduen Hitzaren gonbidapenaren bitartez eta XV. urteurrena dela-eta, berriro ere azaroan Topalekun elkartzea erabaki zen. Bilera hori aurreko azaroaren 28an izan zen, eta zazpi elkartek parte hartu zuten, honako hauek hain zuzen ere:

Donostiakoa: HELDUEN HITZA
Lasartekoa: DANOKIDE
Arrasate/Bergarako: GOIENAGUSI
Zarauzko: KOSTAN ELKARTEA
Irun/Bidasoakoa: DEL PAIS DEL BIDASOA
Tolosakoa: BETI IKASTEN ELKARTEA
Eibarkoa: IKASTEN



informazioa kontrastatzeko helburuarekin. Parte hartu zuten zazpi elkarteen artean 1.400 bazkide ingururi ari gara zerbitzua ematen.
Gai hauei buruz hitz egin zen:

1-Ordezkatutako elkarteen eta pertsonen aurkezpena.
2-2018-19 ikasturteari begirako balorazioa eta ikuspegiak. Irakasleak eta gaitegia.
3-Informazio trukea elkarteen bilera horietan egiten ari garenari buruz.
4-Erakundeen eskutik jasotako dirulaguntzak edo laguntzak, hala nola udalak edo Foru Aldundia.

7.2. Gure Gidak SAN TELMO MUSEOAN

Elkartearen jardueren barruan, Helduen Hitzako bazkideak borondatezko gidak izan dira, beste urte batez, 55 urtetik gorako pertsonentzat. **Arrate Pérez, Juan Mari Pérez, Juan Ignacio Aizpurua, Ramón Leturiondo eta Maria Sanchez** izan dira gure gidak. Urtearen amaieran gida berri bat elkartu da, **Ana Otaegui**, Helduen Hitzako bazkidea, hortaz, 2019. urterako 6 pertsona izango dira.

2018. urtean zehar, 59 talderen gidak izan dira. Museoaren beraren Memorian



agertzen den bezala, 657 pertsona izan dira guztira.

- *San Telmo Museoa eta J. M. Serten pinturak, sarrera.*
- *Euskal Herriaren historia, historiaurretik XVIII. mendera.*
- *XIX. eta XX. mendeak Euskal Herrian.*
- *Industrializazioa Euskal Herrian*
- *Euskal artean XIX. eta XX. mendeetan.*
- *Pinturako europar joerak XV. mendetik XIX. mendera.*

Masifikaziorik egon ez dadin, eta gidak prest egon daitezen, aurretik erreserba egitea gomendatzen du Museoak, 943 48 15 61 telefono zenbakian (asteartetik ostiralera). Bisitari

izan nahi duenak bai +55 San Telmo Museoaren Gida Kultural izan nahi duenak zabalik du aukera.

7.3. EHUko Udako Ikastaroak

Ekainaren 18an, 19an eta 20an izan ziren Miramar Jauregian UPV/EHUk ematen dituen udako ikastaroak, eta HELDUAK ADI eta HEZKUNTZA, FILOSOFIA eta ANTROPOLOGIA FAKULTATEAren arteko IX. topaketa izan zen.

Honako hau izan zen ikastaroko gaia: ADINEKON AHALDUNTZEA EAEKO PARTAIDETZA ETA ERALDAKETA SOZIALA.

Jardunaldiaren lehenengo hizlaria Pedro Miguel Etxenike izan zen (EHU Euskal Herriko Unibertsitatea eta Donostia International Physisc Center-eko Lehendakaria), zientzialari ezaguna eta hainbat aipamen eta sari irabazi dituena mundu osoan zehar.

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN ETA GIZARTEAREN ARTEKO ESKU HARTZEA: BERDINTASUNEKO ETORKIZUNAK ZIENTZIA BEHAR DU.

Ikastaroa oso interesgarria izan zen, oso azalpen zabalekin eta diapositiben bitartez dokumentatua.

Etenaldi labur baten ondoren, EHUko irakasle Ramón Zallok parte hartu zuen (Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatea), eta gai honi buruz jardun zuen: KOMUNIKAZIO ETA KULTURA EGITURAREN ALDAKETAK. ALDI BATEN AMAIERA ETA POLITIKA KULTURAL ETA KOMUNIKATIBO BERRIETARAKO ERRONKA.

Azkenik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kide den Eduardo García Elosuak parte hartu zuen, eta honako honi buruz hitz egin zuen: PENTSIOEI BEGIRAKO JARDUNBIDEEN AZTERKETA ETA PROPOSAMENAK.

Hilaren 19ko jardunaldian honako parte hartze hauek izan ziren:

- Pedro Luis Uriarte jauna – Ekonomista, EUSKAL KONTZERTU EKONOMIKOA, UNE KONPLEXU ETA TRANSZENDENTALEAN.
- Iñigo Lamarca jauna – Batzar Nagusietako letraduna, MIGRAZIO MUGIMENDUAK GERO ETA DESBERDINTASUN HANDIAGOKO TESTUINGURUAN. ERAGINA EUSKADIN.
- Aitor Urrutia Serrano jauna – Deustuko irakaslea, ZAHARTZE AKTIBOAREN GOBERNANTZARAKO HURBILKETA TEORIKOA.

- Lide Amilibia Bergareche andrea – Gobierno Vasco / Eusko Jaurlaritza – Gizarte Politikako Sailburuordea. Gai hau landu zuen: GOBERNANTZA EREDU BERRIA ADINEKOEKIN.

- **Juán Manuel Barandiarán Echeverría jauna – GOIEKI Garapen Agentziaren** Zuzendari ohia: ZAHARTZE AKTIBOAREN POLITIKA EAEko ERAKUNDEETAN.

- Eta Félix Arrieta Frutos jauna – Deustuko Unibertsitateko Irakaslea, honako gai honi buruz jardun zuena: ELKARTEEN AHALDUNTZE PROZESUA, DIAGNOSTIKO PARTEKATUAREN BILAKETA ETA EKINTZA KOMUNAREN LEHENTASUNAK.

Hitzaldi guztiak izan dira onuragarriak, erakusketen edukiagatik eta soiltasunagatik. Helduen Hitzaren aldetik 25 bazkidek parte hartu zuten. Elkarteko bazkideei gogorarazten zaie elkarteak matrikularen % 50eko saria ematen zaiela.

7.4. Boluntariotza

Helduen Hitzako bazkideen lankidetza azpimarratu nahi dugu, gizarte alorreko hainbat erakundetan boluntario lana eginez, hala nola Elikagaien Bankua, Cáritas-Aterpe, Nagusilan, Hazi eta Ikasi – Educacion, Cruz Roja, Donostia Lagunkoia, Fundacion Matia, Fiare-Banca ética, Chernobil Elkartea, etab.

Erakunde horietan lankidetzan diharduten 35 pertsona inguruko talde bati buruz ari gara hizketan.

Pertsona horiei guztiei, gure aitorpena lan solidario eta eskuzabal horregatik. Animo eta eskerrik asko!!!

8. ONDORIOAK

- Berriro ere esan behar dugu Helduen Hitza hazten jarraitzen duela, egiazko gertaera da azken urteotan, eta horrek aditzera ematen du 55 urtetik gorakoek interesa dutela elkartean.

- VI. Literatura Lehiaketa egin zen, eta bertan 9 lan aurkeztu ziren gaztelaniaz eta bat euskaraz.

- *Musika eta Kantua Tailerra* eta *Antzerki Tailerra* sendotzen ari dira, eta Elkartearentzat garrantzizko eragilea bihurtu dira, ikasturte amaierako eta urte amaierako jardueren oinarri nagusia baitira. Eskerrak denei.

- *Euskara eskolak,* elkarteko irakasleak eta ikasleak, ahalegin handiarekin eta boluntario gehiagorekin aurrera jarraitzen dute. Horiei ere eskerrik asko.

- *"Ibilaldiak"* jarduera sendotzen joan da, eta nabarmen igo da parte-hartzaile kopurua.

- *Irteera kulturalak* jarduerak erritmo onean jarraitu dute, 5 irteera egin dira guztira eta ikasturte amaierako bidaia egin zen berriro, Kroaziara oraingoan; Europara iritsi gara. Lorpen handia. Hemen ere eskerrak ematen dizkiogu posible egin duten pertsona guztiei.

- *San Telmo Museoarekin lankidetza* jarduera ere sendotu egin da: bost bazkidek astero, asteartetan, gida lanak egiten dituzte adinekoentzako doako bisitetan, eta urtarriletik aurrera pertsona bat gehiago edukiko dute, 6 izango dira, beraz, guztira.

- Sendotuta dauden gainerako jardueretan eutsi egin zaio parte hartzaile kopuruari batzuetan eta beste batzuetan handitu egin da: *Hitzaldiak, Mendi-ibiliak, Ostegunetako Forua, "Helduen Hitza Berriak" Aldizkari-Buletina, Hitzaldiak-Tertulia euskaraz* eta *Literatura Tertulia*.

- Jarduerak antolatzeko eta aurrera eramateko Lan Batzordeek oso ondo funtzionatu dute. Emaitzak nabarmenak dira, Memoria honetan ikusten denez.

- Eutsi egin diogu Udalarekin dugun harremanari, dagokion atalean egiaztatu daitekeen bezala: programa, *Gizarte Ekintza*ko Sektore Kontseiluetan parte hartzea. Harreman hori sendotzen ari da, ikus daitekeenez, “aintzakotzat hartzen gaituzte”, guk haiek ere bai. Edonola ere, hobetu litekeen harremana dela pentsatzen dugu.

- 2018. urtea Helduen Hitzarentzat WEBgunearen sendotze urtea izan da. Galdetegi bat egin da azaroan bazkideen artean, eta emaitzak pozgarriak izan dira, bai erabilerari eta bertan atzemandako kalitateari dagokionez bai funtzionaltasunari dagokionez. Aurrerapen handia izan da bazkideekiko komunikabide gisa.

- Ondorio orokor gisa: 2018. urtea urte ona izan da Helduen Hitza elkartearentzat.

- Bazkide guztiek elkartearen funtzionamenduan eta mantentze lanetan laguntzeko eta parte hartzeko beren burua aurkeztuko duzuela espero dugu.

9.- ESKERTZAK

- Gure bazkideei, Elkartearen jardueretan izandako parte hartzeagatik.

- Lan Batzordeen arduradunei eta kideei, horiei esker antolatu eta aurrera eramaten baitira jarduerak.

- Zuzendaritza Batzordeko kideei beren inplikazioa eta lanagatik, Helduen Hitzak aurrera jarraitzea ahalbidetzen dutelako.

- *Mertxe Berasain*i, "bazkideen zerbitzura dagoen jarduneko kolaboratzailea", Topalekuko bulegoan egunero egiten duen lanagatik, horri esker denak egiten baitu aurrera eta horri esker, halaber, bazkide berriak Helduen Hitzako kide sentitzen dira eta erantzuten zaie beren eskaerei.

- Isil-isilik hain beharrezkoak diren lan txikiak zein handiak egiten dituztenei.

- Beren ahalegina, denbora eta ilusioa eskaintzen dutenei euskara ikasteko prozesuan laguntza eduki nahi dutenek eduki dezaten. Eskerrik asko irakasle guztiei.

- Gure hiriko Udalari, lokalak uzten dizkigulako gure Elkartearen jardunerako eta hainbat jarduera egiteko.

- *Jose Mari Albisur*i, Topalekuko mantentze lanetan aritzen denari, beti egin duen bezala oso modu positiboan, isilik eta pazientziaz konpontzen dituelako gure premiak. Bere irribarre adeitsuarekin gure jarduerak gauzatzen laguntzen du, libre dauden tarteak bilatuz eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Mila esker, Jose Mari.

- Eskerrak Topalekuko langile guztiei.

- Eskerrik asko +55eko Mariari, bere aholkularitza lanagatik eta laguntzagatik. Eskerrik asko, halaber, isilean baina modu aktiboan egiten duen lanagatik.

- Eskerrik asko gure hiriko kultur etxeei (Okendo, Aiete eta Lugaritza), gure jardueratako batzuk egiten laguntzen digutelako.

- Eta barkamena eskatzen dugu norbait ahaztu badugu. Helduen Hitzaren jarduna gure eskertza jasotzen dutenei esker da posible.